

FORU DEKRETUA, Bizkaiko Foru Aldundiarena, zeinaren bidez onesten baitira banda zabal ultralasterreko sareak Bizkaiko Lurralde Historikoko biztanlegune sakabanatueta hedatzea sustatzeko dirulaguntzen oinarri arautzaileak eta deialdia (2024).

Azpiegituretarako eta Lurralde Garapenerako Sailaren egitura organikoaren erregelamendua onesten duen Bizkaiko Foru Aldundiaren 2022ko abuztuaren 24ko 101/2022 Foru Dekretuak xedatutakoaren arabera, Bizkaiko Lurralde Historikoko Foru Administrazioari indarrean dagoen antolamendu juridikoak bidez azpiegituren, bideak ez diren azpiegituren arloan ematen dizkion eskumenak baliatzeko eratzten da sail hori. Beraz, haren jardun-arloen artean daude Bizkaiko Foru Aldundiarentzat interesgarriak diren eta bideak ez diren azpiegiturak bultzatzea eta garatzea, beraren eskumenen esparruan.

Sailaren dirulaguntzen plan estrategikoan, bada dirulaguntza-ildo bat banda zabal ultralasterreko sareak 2024an Bizkaiko Lurralde Historikoko biztanlegune sakabanatueta hedatzea sustatzeko, eta Bizkaiko Lurralde Historikoko aurrekontu orokorretan badaude dirulaguntzok ordaindu ahal izateko behar diren kredituak. Horretarako, beharrezkoa da deialdiaren aurretik kredituoi buruzko araudia ezartzea. Foru Administrazioak ematen dituen diru-laguntzen araubide juridiko orokorra arautzen duen maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauaren (aurrerantz, 5/2005 Foru Araua) 16.1. artikularen bidez, ahalmena ematen zaio Bizkaiko Foru Aldundiari, foru-dekretu bidez dirulaguntzen oinarri arautzaileak onets ditzan, zerbitzu juridikoak txostena eman eta gero. Foru-arau beraren 8.3. artikulua zehazten du dirulaguntza mota bakoitzari dagozkion oinarriak Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratuko direla.

Bizkaiko Foru Aldundiak, 2020an, koronabirusaren krisiaren ondoren lurraldea suspertzeko premiazko plan bat onartu zuen. Bizkaia aurrera! deritzon plan horrek 12 neurri ekonomiko jasotzen zituen, pertsona, enpresa eta sektore guztiei premiaz laguntzeko garai hura gainditzeko eta jardura lehengoratzeko. Premiazko neurri horietako bat Bizkaia Aurrera Digitalizazio Plana zen, eta haren

DECRETO FORAL de la Diputación Foral de Bizkaia por el que se aprueban las bases reguladoras y la convocatoria de las subvenciones para impulsar la extensión de redes de banda ancha ultrarrápida en zonas diseminadas de población del Territorio Histórico de Bizkaia 2024.

El Decreto Foral 101/2022, de 24 de agosto, de la Diputación Foral de Bizkaia por el que se aprueba el Reglamento de Estructura Orgánica del Departamento Foral de Infraestructuras y Desarrollo Territorial dispone que el citado Departamento Foral se constituye para el ejercicio de las competencias reconocidas a la Administración Foral del Territorio Histórico de Bizkaia por el vigente ordenamiento jurídico en materia de infraestructuras no viarias. De tal forma que dentro de sus áreas de actuación se encuentra el impulso y desarrollo de infraestructuras no viarias de interés para la Diputación Foral de Bizkaia en el ámbito de sus competencias.

En el plan estratégico de subvenciones del Departamento se contempla una línea de subvenciones con destino a impulsar la extensión de redes de banda ancha ultrarrápida en zonas diseminadas de población del Territorio Histórico de Bizkaia 2024 y en los Presupuestos Generales del THB existen los créditos precisos para hacerlas efectivas, a cuyo efecto se hace necesario establecer con carácter previo a la convocatoria su normativa reguladora. El artículo 16.1 de la Norma Foral 5/2005, de 31 de mayo, por la que se regula el régimen jurídico general de las subvenciones otorgadas por la Administración Foral modificaciones y normativa de desarrollo (en adelante Norma Foral 5/2005) habilita a la Diputación Foral de Bizkaia para aprobar las bases reguladoras de la concesión de subvenciones mediante decreto foral, previo informe del servicio jurídico, y el artículo 8.3 de dicha Norma Foral 5/2005 precisa que las bases que se referirán a cada tipo de subvención se publicarán en el «Boletín Oficial del Bizkaia».

La Diputación Foral de Bizkaia aprobó en 2020, un plan urgente de reactivación económica por la crisis del Coronavirus. Dicho Plan denominado Bizkaia Aurrera! que contenía 12 medidas económicas para ayudar de forma urgente a todas estas personas, empresas y sectores a sobrepasar este momento y a recuperar la actividad. Una de dichas medidas urgentes fue el Plan de





helburuetako bat banda zabala Bizkaiko udalerri guztietara zabaltzea zen.

Ilido horretan, zenbait urte lehenagotik, euskal erakundeak lanean ari ziren edozein biztanlegunetako pertsonen eta enpresen konektibitatea hobetzeko, biztanleguneko biztanle-kopurua eta tamaina edozein direlarik ere.

Konektibitatea hobetzeko ahalegin horretan, Bizkaiko Foru Aldundiak (BFA), Eusko Jaurlaritzarekin eta beste bi foru-aldundiekin batera, jarduera estrategiko batzuk garatu zituen euskal ekonomiaren eta industriaren lehiakortasuna hobetzeko, banda zabal ultralasterra Euskal Autonomia Erkidegoko enpresa-arlo guztietara hedatzeko programak abian jarritz.

Banda zabal ultralasterra industrialde askotara eramateak, horrelako zerbitzuak biztanleguneetara hedatzeko Eusko Jaurlaritzaren ekimenarekin batera (2016, 2017, 2018, 2019 eta 2020. urteetan abian jarritako programen bidez), erraztu egin zuen banda zabala gainerako biztanleguneetako etxeetara zabaltzea, non zerbitzu horien gabezia edo defizita identifikatu baitzen.

Gabezia hori bereziki nabarmena da landa-eremuetan, operadoreek gehienetan erabakitzen baitute eremu horietaraino ez iristea eta, ondorioz, desoreka handiagoa sortzen da konektibitatean, biztanle gutxiago duten udalerrietako eta biztanle-kopuru handiagoa duten udalerrietako pertsonen artean.

Bizkaiko Foru Aldundiak ahalegin horretan jarraitu nahi du. Izan ere, belaunaldi berriko teknologiak gero eta gehiago erabiltzen dira, eta gaitasun handiko komunikazioak behar dira eskari txikiagoko eremuetan, esaterako, landa-eremuetan edo iristeko zailak diren eremuetan, aurreko programen bidez egin ezin izan ziren lekuetan hedapenak osatzeko. Ahalegin horren helburua izango da aurreko programetan bete gabe geratu ziren eremuetara iristea.

Horiek horrela, Europako Batzordeak (EB) «Konektagarritasuna Europako Gigabit Gizartearentzat» izenekoaren oinarriak ezarri zituen, eta bertan proposatzen du enpresa intentsiboki digitalek 1 Gb/s simetrikoko Interneteko konexioak eduki beharko lituzketela 2025erako. Horrez gain, Europako etxe guztiek (landa-eremukoak zein hirietakoak) sarbidea izan

Digitalización Bizkaia Aurrera, entre cuyos objetivos se encontraba impulsar la extensión de la banda ancha a todos los municipios de Bizkaia

En este sentido, desde algunos años antes, las instituciones vascas venían realizando una apuesta clara por la mejora de la conectividad de las personas que residen y de las empresas ubicadas en cualquier unidad de población, independientemente de cuál sea su número de habitantes y dimensión.

En esta línea de mejora de la conectividad, la Diputación Foral de Bizkaia (DFB) desarrolló, de manera conjunta con el Gobierno Vasco y las otras dos Diputaciones Forales, varias actuaciones estratégicas que han contribuido a la mejora competitiva de la economía y de la industria vasca, mediante el lanzamiento de programas para la extensión de la banda ancha ultrarrápida al conjunto de áreas empresariales de la Comunidad Autónoma del País Vasco.

El hecho de habilitar banda ancha ultrarrápida en gran número de polígonos industriales junto con la iniciativa de Gobierno Vasco para la extensión de este tipo de servicios a núcleos de población (a través de programas lanzados en 2016, 2017, 2018, 2019 y 2020) facilitó la posterior extensión de la banda ancha a los hogares del resto de unidades de población en las que se identificaba una brecha o déficit de estos servicios.

Esta brecha se hace especialmente relevante en el caso de las zonas rurales donde habitualmente las operadoras optan por no intervenir, produciéndose un mayor desequilibrio en la conectividad entre las personas de municipios menos poblados con respecto a localidades donde se concentra mayor población.

La Diputación Foral de Bizkaia pretende continuar con este esfuerzo, motivado por la creciente utilización de tecnologías de nueva generación, así como por la necesidad de disponer de comunicaciones de alta capacidad en zonas de menor demanda, como las zonas rurales o de difícil acceso, con la intención de completar los despliegues en aquellas ubicaciones en las que no pudo realizarse a través de programas anteriores.

En esta línea, la Comisión Europea (CE) estableció las bases de lo que ha llamado «Conectividad para la Sociedad Gigabit Europea» donde propone que las empresas intensivamente digitales deberían disponer de conexiones a internet de 1 Gbps simétrico para 2025. Adicionalmente, todos los hogares europeos, rurales o urbanos, deberán disponer de acceso a redes que ofrezcan una velocidad de descarga de, al menos, 100





beharko dute, gutxienez, 100 Mb/s-ko deskarga-abiadura eskaintzen duten sareetara, eta 1 Gb/s-ra arte handitu ahal izango da.

Aipatzekoa da, Europar Batasunean, azken aldiko eskualde-politikako jarraibideek belaunaldi berriko azpiegiturak bultzatzeko jarduketak txertatu eta horiek gauzatzeko aukera sustatu dutela politika publikoetatik, banda zabaleko sareak azkar hedatzeko estatu-laguntzei buruzko arauak aplikatzeko Europar Batasunaren (aurrerantzean, EB) gidalerroetan jasotzen den legeaz. Halaber, jarduketa horiek Europako Batzordearen 2014ko ekainaren 17ko 651/2014/EB Erregelamenduan sartzea sustatu da (erregelamendu horrek barruko merkatuarekin bateragarriak diren laguntza-maila batzuk adierazten ditu), Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuaren 107. eta 108. artikulua betetzeko (EBAO L 187, 2014ko ekainaren 26koa). Nolanahi ere, ez da ahaztu behar sektorea liberalizatuta dagoela eta, alde horretatik, telekomunikazioen merkatuaren arauak bete behar direla.

Hori dela eta, beharrezkotzat jotzen da herritarrek Interneteko konexio ultralastera eta segurua izateko duten eskubidea baliatu ahal izatea, eguneroko jarduerak edo administrazio-izapideak egiteko aukera izan dezaten. Izan ere, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak bitarteko elektronikoen erabilera ezartzen du.

Elementu horiek guztiak ikusita, egokia dirudi beste planteamendu bat egiteak eta konektibitate-mailak emateko asmoa abian jartzeko ekintza publiko irmo bat egiteak, Europako Batzordearen helburuei jarraituz, operadoreen hedapen-gaitasunean oinarrituta eta pertsona guztiek eskuratzeko moduko prezioak bermatuta.

Esandakoaren harira, merkatuko gabeziak konpontzen lagunduko duten dirulaguntzak emateko oinarriak ezartzen ditu, gutxienez, 300 Mb/s-ko (bi noranzkoetan) banda zabaleko sareak Bizkaiko Lurralde Historikoko biztanlegune sakabanatuetara hedatzea sustatzeko, baldin eta biztanlegune horiek dauden eremuan sareak ezin badu eskaini gutxienez 100 Mb/s-ko jaitsiera-abiadurarik eskari handieneko uneetan, edo ezin badu eskaini horrelako sare baten hedapenari buruzko plan sinesgarririk.

Dirulaguntza horiek Europako Batzordearen 2014ko ekainaren 17ko 651/2014 (EB) Erregelamenduak xedatzen duen jakinarazpenetik salbuetsita daude.

Mbps, los cuales deberían poder ser aumentados a 1 Gbps.

Es reseñable ver que, en la Unión Europea, las pautas de la política regional en el último periodo han incorporado y animado la posibilidad de actuaciones de impulso desde las políticas públicas para el desarrollo de las infraestructuras de nueva generación, tal como se recoge en las Directrices de la Unión Europea (en adelante UE) relativas a las ayudas estatales a las redes de banda ancha (2023/C 36/01), así como la inclusión de estas actuaciones en el Reglamento (UE) 651/2014 de la Comisión Europea, de 17 de junio de 2014, por la que se declaran determinadas categorías de ayudas compatibles con el mercado interior en aplicación de los artículos 107 y 108 del Tratado-DOUE L 187, de 26 de junio de 2014, por su interés estratégico. En cualquier caso, no debe olvidarse que el sector se encuentra liberalizado y, en este sentido, se debe atender a las reglas existentes en el mercado de telecomunicaciones.

Así pues, se considera necesario que la ciudadanía pueda ejercer su derecho a una conexión a Internet ultrarrápida y segura para realizar actividades cotidianas o trámites administrativos, debido a la utilización de los medios electrónicos establecida por la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas.

A la vista de todos estos elementos, parece oportuno un replanteamiento y una acción pública decidida que aborde la pretensión de dotar de niveles de conectividad, siguiendo los objetivos de la Comisión Europea, que se apoye en la capacidad de despliegue de las operadoras y, por último, asegure su disponibilidad a toda la sociedad, en márgenes de precios asequibles.

De este modo, el presente Decreto establece las bases que regirán la concesión de subvenciones que ayuden a subsanar las carencias del mercado, de manera que se incentive el despliegue de redes de banda ancha de al menos 300Mbps (en ambos sentidos) en las zonas diseminadas de población del Territorio Histórico de Bizkaia 2024 que se encuentren en zonas en las que no existe una red capaz de proporcionar velocidades de bajada de, al menos, 100 Mbps en condiciones de máxima demanda o planes creíbles para su despliegue en los próximos tres años.

Estas subvenciones se acogen a la exención de notificación prevista en el Reglamento (UE) 651/2014 de la Comisión Europea, de 17 de junio de 2014, en el que se





Erregelamendu horrek barruko merkatuarekin bateragarriak diren laguntza-maila batzuk adierazten ditu, Tratatuaren 107. eta 108. artikulua betetzeko.

Era berean, ekainaren 5eko 462/2015 Errege Dekretuak xedatzen duen bezala (dekretu horren bidez, banda zabaleko sareen eskaintza eta erabilgarritasuna sustatuz informazioaren gizartea bultzatzea helburu duten laguntza publikoen arloan, administrazio publikoen arteko koordinaziorako tresnak eta prozedurak arautzen dira), Telekomunikazioen eta Azpiegitura Digitalen Estatuko Idazkaritzak laguntza-programa horren aldeko txostena egin du, oinarri hauen xede diren dirulaguntzen bateragarritasunari buruz. Txosten horrek egiaztatzen du administrazio publikoen artean koordinazio egokia dagoela, banda zabaleko sareen eskaintza eta erabilgarritasuna sustatuz, informazioaren gizartea sustatzen duten laguntza publikoen arloan.

Jarraibide horiekin bat etorritik, Foru Administrazioak ematen dituen diru-laguntzen araubide juridiko orokorra arautzen duen maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauak (aurrerantzean, 5/2005 Foru Araua) xedatutakoaren arabera eta Europako Batzordeak 2014ko ekainaren 17ko 651/2014 Erregelamenduak ezarritakoaren arabera (erregelamendu horrek barruko merkatuarekin bateragarriak diren laguntza-maila batzuk adierazten ditu, Tratatuaren 107. eta 108. artikulua betetzeko. EBAO L 187, 2014ko ekainaren 26koa), Bizkaiko Lurralde Historikoko biztanlegune sakabanatuetan banda zabal ultralasterreko sareak hedatzeko 2024ko laguntza-programa hau ezarri da.

Foru-dekretu honetan, genero-ikuspegia jasotzen da, bai hura prestatzeko orduan bai haren aplikazioan, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako ekainaren 20ko 4/2018 Foru Arauan (aurrerantzean 4/2018 Foru Arauan) ezarritakoarekin bat. Gainera, kontuan hartu da 4/2018 Foru Arauaren 25. artikuluan eta Bizkaiko Foru Aldundiaren azaroaren 19ko 141/2013 Foru Dekretuan xedatutakoa; izan ere, 141/2013 Foru Dekretuaren bidez, generoaren eraginaren aurretiazko ebaluazioa egiteko jarraibideak ezartzen dira; ebaluazio hori 1/2023 Legegintzako Dekretua, martxoaren 16koa, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako eta Emakumeen aurkako Indarkeria Matxistarak Gabeko Bizitzetarako Legearen testuategina onartzen duenean (aurrerantzean, 1/2023 Legegintzako Dekretua) dago aurrez ikusita. Ildo horretan, tramitazioan «Genero-

declaran determinadas categorías de ayudas compatibles con el mercado interior en aplicación de los artículos 107 y 108 del Tratado.

Del mismo modo, tal y como se establece en el Real Decreto 462/2015, de 5 de junio, por el que se regulan instrumentos y procedimientos de coordinación entre diferentes Administraciones Públicas en materia de ayudas públicas dirigidas a favorecer el impulso de la sociedad de la información mediante el fomento de la oferta y disponibilidad de redes de banda ancha, este programa de ayudas ha obtenido, de la Secretaría de Estado de Telecomunicaciones e Infraestructuras Digitales, el pertinente informe favorable sobre la compatibilidad de las ayudas objeto de estas bases, que acredita la adecuada coordinación entre las Administraciones Públicas en materia de ayudas públicas al impulso de la Sociedad de la Información, mediante el fomento de la oferta y disponibilidad de redes de banda ancha.

De acuerdo con estas directrices, conforme a lo dispuesto en la Norma Foral 5/2005, de 31 de mayo, por la que se regula el régimen jurídico general de las subvenciones otorgadas por la Administración Foral modificaciones y normativa de desarrollo (en adelante Norma Foral 5/2005), y con lo establecido por la Comisión Europea en el Reglamento 651/2014, de la Comisión de 17 de junio de 2014, por el que se declaran determinadas categorías de ayudas compatibles con el mercado interior, en aplicación de los artículos 107 y 108 del Tratado, publicado en el DOUE, L 187, de 26 de junio de 2014, se establece el siguiente programa de ayudas a la extensión de redes de banda ancha ultrarrápida en zonas diseminadas de población del Territorio Histórico de Bizkaia 2024.

El presente Decreto incorpora la perspectiva de género tanto en su elaboración como en su aplicación, tal y como se señala en la Norma Foral 4/2018, de 20 de junio, para la igualdad de mujeres y hombres (en adelante Norma Foral 4/2018). Además, se ha tenido en cuenta lo dispuesto en el artículo 25 de la Norma Foral 4/2018 y en el Decreto Foral de la Diputación Foral de Bizkaia 141/2013, de 19 de noviembre, por el que se fijan las Directrices en las que se recogen las pautas a seguir para la realización de la evaluación previa del impacto en función del género prevista en Decreto Legislativo 1/2023, de 16 de marzo, por el que se aprueba el texto refundido de la Ley para la Igualdad de Mujeres y Hombres y Vidas Libres de Violencia Machista contra las Mujeres (en adelante, Decreto Legislativo 1/2023). En este sentido, en su tramitación se incorpora el «Informe





inpaktuaren aurretiazko ebaluazio-txostena» txertatu da, zeinari erreferentzia egiten baitio dekretu horren 2. artikulua.

Programa honetan, gizonen eta emakumeen arteko berdintasuna sustatzeaz gain, klausula sozialak ezarri dira, otsailaren 27ko 16/2018 Foru Dekretuak onartutako «Dirulaguntzetarako prozeduretan klausula sozialak, ingurumenekoak eta beste politika publiko batzuei buruzkoak sartzeko gida»ren gomendioak betetzeko. Gida hori otsailaren 27ko 16/2018 Foru Dekretuaren bidez onartu zen, zeinaren bidez aldatzen baita Dirulaguntzen Erregelamendua, maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Araua garatzekoa (Bizkaiko Foru Aldundiaren 2010eko martxoaren 23ko 34/2010 Foru Dekretuak onartu zuen erregelamendu hori).

Foru-dekretu honek betetzen ditu erregulazio onaren printzipioak, zeinak aurreikusten baitira irailaren 1eko 39/2015 Legean (aurrerantzean, 39/2015 Legea), Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzkoan, eta Bizkaiko Foru Aldundiaren 2021eko ekainaren 15eko 87/2021 Foru Dekretuaren 3. artikuluan, zeinaren bidez Bizkaiko Foru Aldundian xedapen orokorrak egiteko prozedura arautzen baita.

Azkenik, dekretu hau egiteko, kontuan hartu da Bizkaiko Foru Aldundiaren ekainaren 15eko 87/2021 Foru Dekretuan ezarritakoa (Bizkaiko Foru Aldundian xedapen orokorrak egiteko prozedura arautzen duena), bai eta maiatzaren 28ko 63/2019 Foru Dekretuan (Bizkaiko Foru Aldundiaren jarduera-esparruan hizkuntza ofizialak erabiltzeko irizpideak ezartzen dituen) xedatutakoa ere.

Azaldutakoa dela bide, Azpiegiturarako eta Lurralde Garapenerako Saileko foru-diputatuak proposatuta eta Bizkaiko Foru Aldundiaren Gobernu Kontseiluak aztertu eta onartu ondoren, honako hau

XEDATZEN DUT:

Artikulu bakarra.– Bizkaiko Lurralde Historikoko biztanlegune sakabanatuetan banda zabal ultralasterreko sareak hedatzeko laguntza-programaren oinarri arautzaileak eta deialdia onartzea. Azpiegiturarako eta Lurralde Garapenerako Foru Sailak emango ditu laguntzok, eta laguntza-programari dagokion testua jarraian txertatuta doa.

de Evaluación Previa del Impacto en Función del Género» al que hace referencia el artículo 2 del citado Decreto Foral.

Además del fomento de la igualdad entre hombres y mujeres en este programa se han establecido cláusulas sociales en cumplimiento de las recomendaciones de la «Guía para la inclusión de cláusulas sociales, medioambientales y relativas a otras políticas públicas en los procedimientos de subvenciones» aprobada por el Decreto foral 16/2018, de 27 de febrero, que modifica el Reglamento de Subvenciones, de desarrollo de la Norma Foral 5/2005, aprobado por Decreto Foral de la Diputación Foral de Bizkaia 34/2010, de 23 de marzo.

Asimismo, el presente Decreto Foral responde a los principios de buena regulación previstos en la Ley 39/2015 de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas (en adelante Ley 39/2015) y recogidos en el artículo 3 del Decreto Foral 87/2021, de 15 de junio, de la Diputación Foral de Bizkaia, por el que se regula el procedimiento de elaboración de disposiciones de carácter general en la Diputación Foral de Bizkaia.

Finalmente, se ha tenido en cuenta para la elaboración de este Decreto lo establecido en el citado Decreto Foral 87/2021, de 15 de junio, de la Diputación Foral de Bizkaia, por el que se regula el procedimiento de elaboración de disposiciones de carácter general en la Diputación Foral de Bizkaia, así como lo dispuesto en el Decreto Foral 63/2019 de 28 de mayo que establece los criterios de uso de las lenguas oficiales en el ámbito de actuación de la Diputación de Bizkaia.

Por lo expuesto, a propuesta del Diputado Foral de Infraestructuras y Desarrollo Territorial y previa deliberación y aprobación del Consejo de Gobierno de la Diputación Foral de Bizkaia,

DISPONGO:

Artículo Único.– Aprobar las bases reguladoras y la convocatoria del programa de ayudas a la extensión de redes de banda ancha ultrarrápida en las zonas diseminadas del Territorio Histórico de Bizkaia 2024 que se concedan por el Departamento Foral de Infraestructuras y Desarrollo Territorial cuyo texto se inserta a continuación.





DEIALDIA ETA OINARRI ARAUTZAILEAK

CONVOCATORIA Y BASES REGULADORAS

I. TITULUA

TITULO I

Xedapen orokorrak

Disposiciones generales

1. artikulua. Xedea.

Artículo 1. Objeto.

Deialdi honen xedea da laguntzak ematea sarbide finko ultralasterreko sareak hedatzeko Bizkaiko Lurralde Historikoko biztanlegune sakabanatuetan, baldin eta biztanlegune horiek dauden eremuan sareak ezin badu eskaini gutxienez 100 Mb/s-ko jaitsiera-abiadurarik eskari handieneko uneetan, edo ezin badu eskaini horrelako sare baten hedapenari buruzko plan sinesgarririk.

Es objeto de la presente convocatoria la concesión de ayudas para extender las redes de acceso fijo ultrarrápido en zonas diseminadas de población del Territorio Histórico de Bizkaia en las que no existe una red capaz de proporcionar velocidades de bajada de, al menos, 100 Mbps en condiciones de máxima demanda o planes creíbles para su despliegue en los próximos tres años

Oinarri hauetan jasotako laguntzak Batzordearen 2014ko ekainaren 17ko 651/2014 EB Erregelamenduaren babesean ematen dira. Erregelamendu horrek barruko merkatuarekin bateragarriak diren laguntza-maila batzuk adierazten ditu, Tratatuaren 107. eta 108. artikulua betetzeko (52. artikulua: banda zabaleko azpiegituretarako laguntzak). Horretarako, oinarri hauetan aipatzen diren kontzeptuak erregelamendu horren arabera interpretatu beharko dira (Europar Batasunaren Aldizkari Ofiziala, L 187, 2014ko ekainaren 26koa).

Las ayudas contempladas en estas Bases se acogen al Reglamento UE 651/2014, de la Comisión, de 17 de junio de 2014, por el que se declaran determinadas categorías de ayudas compatibles con el mercado interior en aplicación de los artículos 107 y 108 del Tratado (artículo 52: ayudas para infraestructuras de banda ancha). A tal efecto, los conceptos a los que estas bases aluden que se encuentran definidos por el mismo, deberán, en todo caso, interpretarse conforme a dicho Reglamento (Diario Oficial de la Unión Europea L 187 de 26 de junio de 2014).

2. artikulua. Erakunde onuradunak.

Artículo 2. Definiciones.

Oinarri arautzaile hauen ondorioetarako, definizio hauek erabiliko dira:

A efectos de las presentes bases reguladoras, se aplicarán las siguientes definiciones:

a) «Sarbide finko ultralasterreko sarea»: gutxienez 100 Mb/s-ko deskarga-abiadurako zerbitzuak ematen dituen sarbide finkoko sarea («banda zabal ultralasterreko zerbitzu finkoak»).

a) “Red de acceso fijo ultrarrápido”: red de acceso fijo que presta servicios de 100 Mbps como mínimo de velocidad de descarga («servicios fijos de banda ancha ultrarrápida»).

b) «Eskari handieneko baldintzak»: gutxienez erabiltzaileen (konektatuak zein potentzialak) % 10ek, denek aldi berean, operadoreak bakoitzari ematen dion goranzko zein beheranzko gehieneko abiadura nominalarekin (azken erabiltzaileen kontratuetan jasotako gehieneko abiadura) transmititzen duten bakoitzean dauden baldintzak dira. Definizio hori bat dator gehiegizko harpidetzaren tasaren ohiko definizioarekin. Sare-azpiegitura berak errendimendu-maila desberdinak eskaini ahal dizkie azken erabiltzaileei, botila-lepoa sortzen den datu-komunikazioko loturetan dauden erabiltzaile multiplexatuen kopuruaren eta haien abiadura nominalaren arabera. Errendimendua aldi berean aktibo dauden erabiltzaileen kopuruaren

b) “Condiciones de máxima demanda”: deben entenderse como las condiciones que se dan cada vez que un mínimo del 10 % de los usuarios (tanto conectados como potenciales) transmiten simultáneamente a la velocidad máxima nominal (velocidad máxima incluida en los contratos de los usuarios finales) que les proporciona el operador individualmente, tanto en sentido descendente como ascendente, lo que se corresponde con la definición habitual de tasa de sobresuscripción. La misma infraestructura de red puede ofrecer niveles de rendimiento diferentes a los usuarios finales en función del número de usuarios multiplexados en enlaces con cuellos de botella y de cuál es su velocidad nominal. El rendimiento depende del número de usuarios activos





araberakoa da (handiagoa da eskari handieneko baldintzetan). «Multiplexazio estatistikoaren irabazi» horrek (gutxienez % 10, hau da, 1:10 jarduera-maila) eskatzen du operadoreek erabiltzaileen trafikoa banatzeko eredu zehatzak erabiltzea. Iturria: Banda zabaleko sareetarako estatu-laguntzei buruzko gidalerroak (Batzordearen 2023/C 36/01 Komunikazioa).

c) «Higiezin-unitatea»: edozein eraikin mota edo eraikinaren zatiketa horizontala, bizitegi-erabilerarako izan zein ez izan, eta, oro har, komunikazio elektronikoen sare publikora konexioak eskatzen dituen. Definizio horretatik kanpo geratzen dira eraikuntzarik gabeko finkak eta etxebizitzetako atxikitako eraikinak, esaterako, biltegiak, trastelekuak, garajeak, espazio komunitarioak eta antzekoak.

d) «Handizkarien sarbidea»: operadore bati beste operadore baten instalazioak erabiltzea ahalbidetzen dion sarbidea; handizkarien sarbideak, teknikaren egungo egoeran oinarrituta, gutxienez sarbide-produktu hauek barne hartuko ditu: i) FTTx sareen kasuan: banda zabaleko azpiegiturarako sarbidea, desagregazioa eta zeharkako sarbidea; ii) kable-sareen kasuan: banda zabaleko azpiegiturarako sarbidea eta zerbitzu aktiboetarako sarbidea; iii) hari gabeko sare finkoen kasuan: banda zabaleko azpiegiturarako sarbidea eta zerbitzu aktiboetarako sarbidea; iv) sare mugikorren kasuan: banda zabaleko azpiegiturarako sarbidea eta zerbitzu aktiboetarako sarbidea (gutxienez, ibiltaritzaz); v) satellite bidezko plataformen kasuan: zerbitzu aktiboetarako sarbidea; vi) itzulera-sareen kasuan: banda zabaleko azpiegiturarako sarbidea eta zerbitzu aktiboetarako sarbidea.

3. artikulua. Entitate onuradunak.

1. Oinarri arautzaile hauetan jasotako dirulaguntzen onuradun izan daitezke telekomunikazioetako operadore gaitua diren sektore pribatuko pertsona fisiko edo juridikoak, Telekomunikazioei buruzko ekainaren 28ko 11/2022 Lege Orokorraren 6. eta 7. artikuluetan ezarritakoaren arabera; halaber, pertsona fisiko edo juridiko horien taldeak ere izan daitezke entitate onuradunak, eta kasu horretan, elkartea onartuko da eskatzen diren baldintzak betetzeko, behar bezala gaitutako komunikazio elektronikoetako operadore izaerari dagokionez.

simultáneamente (que es mayor en las condiciones de máxima demanda). Esta «ganancia de multiplexación estadística» (mínimo del 10 %, es decir, nivel de actividad 1:10) exige también que los operadores utilicen modelos de distribución del tráfico de usuarios lo suficientemente precisos. Fuente: Directrices relativas a las ayudas estatales a las redes de banda ancha (Comunicación de la Comisión 2023/C 36/01).

c) “Unidad inmobiliaria”: se entiende por unidad inmobiliaria cualquier tipo de edificación o división horizontal de la misma, destinada a uso residencial o no residencial que, de forma general, demanda conexiones a la red pública de comunicaciones electrónicas. Quedan excluidas las fincas sin edificación y los tipos de edificaciones anejas a viviendas como almacenes, trasteros, garajes, espacios comunitarios y similares.

d) “Acceso mayorista”: acceso que permite a un operador utilizar las instalaciones de otro operador; el acceso mayorista incluirá, sobre la base del estado actual de la técnica, al menos los siguientes productos de acceso: i) en el caso de las redes FTTx: acceso a la infraestructura de banda ancha, desagregación y acceso indirecto; ii) en el caso de las redes de cable: acceso a la infraestructura de banda ancha y acceso a los servicios activos; iii) en el caso de las redes inalámbricas fijas: acceso a la infraestructura de banda ancha y acceso a los servicios activos; iv) en el caso de las redes móviles: acceso a la infraestructura de banda ancha y acceso a los servicios activos (al menos, itinerancia); v) en el caso de las plataformas vía satélite: acceso a los servicios activos; vi) en el caso de las redes de retorno: acceso a la infraestructura de banda ancha y acceso a los servicios activos.

Artículo 3. Entidades beneficiarias.

1. Podrán acceder a la condición de personas beneficiarias de las subvenciones contempladas en las presentes bases reguladoras las personas físicas o jurídicas pertenecientes al sector privado, que ostenten la condición de operador debidamente habilitado, conforme a lo establecido en los artículos 6 y 7 de la Ley 11/2022, de 28 de junio, General de Telecomunicaciones, así como las agrupaciones de dichas personas físicas o jurídicas, admitiéndose, en dicho caso, la acumulación como forma para el cumplimiento de los requisitos exigidos en cuanto a la condición de operador de comunicaciones electrónicas debidamente habilitado.





Pertsona fisiko edo juridiko publiko nahiz pribatuen elkarteak direnean, eskabideari atxikitako agiri batean beren-beregi adierazi beharko dira elkartekide bakoitzak bere gain harturiko konpromisoak, eginkizunak betetzeari dagokionez, baita elkartekide bakoitzak exekutatu behar duen aurrekontuaren zenbatekoa ere. Elkartekide bakoitza pertsona onuraduntzat hartuko da. Edonola ere, elkartearen ordezkari edo ahalduen bakarra izendatu beharko da, eta elkarteari pertsona onuraduna den neurrian dagozkion betebeharrak betetzeko ahalorde nahikoa izango du. 5/2005 Foru Arauaren 35. eta 59. artikuluetan aurreikusitako preskripzio-epea igaro arte ezin daiteke elkarte desegin.

Nortasunik gabeko elkarteei dagokienez, ezin daitezke deialdi honen dirulaguntzen onuradun izan, baldin eta kideetako edozein eskaera egin duten pertsonetako bakoitzari aplikatzen zaizkion legezko inguruabarretako batean badago.

2. Entitate onuradunek honako baldintza hauek bete beharko dituzte:

a) Egunean izatea zerga-betebeharrak, Gizarte Segurantzarekikoak eta dirulaguntzak itzultzeari dagozkionak.

b) 4/2018 Foru Arauaren 42. artikuluan ezarritako ezein egoeratan sartuta ez egotea.

c) 5/2005 Foru Arauaren 12. artikulua ezartzen dituen inguruabarretako batean ere ez egotea; laguntza bat legez kontraktatzat edo barne-merkatuarekin bateraezintzat jo duen Europako Batzordearen aurretiko adierazpen baten ondoren laguntza hori berreskuratzeko emandako agindu bati lotuta ez egotea; krisian dagoen enpresa ez izatea, krisian dauden enpresa ez-finantzarioak salbatzeko eta berregituratzeko estatu-laguntzei buruzko zuzentarauak (EBAO C249, 2014ko uztailaren 31koa) ematen duen definizioaren arabera.

Entitate onuradunaren izaera lortzeko debekua ekarriko du baldintzak ez betetzeak. Debekua eragin duten inguruabarrek irautean duten bitartean iraungo du debekuak, 5/2005 Foru Arauaren 12. artikuluan ezarritakoaren arabera.

Cuando se trate de agrupaciones de personas físicas o jurídicas, deberán hacerse constar expresamente, en documento anexo a la solicitud, los compromisos de ejecución asumidos por cada miembro de la agrupación, así como el importe de presupuesto a ejecutar por cada uno de ellos, que tendrán igualmente la consideración de persona beneficiaria. En cualquier caso, deberá nombrarse un representante o apoderado único de la agrupación, con poderes bastantes para cumplir las obligaciones que, como persona beneficiaria, corresponden a la agrupación. No podrá disolverse la agrupación hasta que haya transcurrido el plazo de prescripción previsto en los artículos 35 y 59 de la Norma Foral 5/2005.

Con respecto a las agrupaciones sin personalidad, no podrán acceder a la condición de beneficiaria de la subvención objeto de la presente convocatoria cuando concurra, en cualquiera de sus miembros, alguna de las circunstancias legales que sean de aplicación a las personas que singularmente formulan la solicitud.

2. Las entidades beneficiarias deberán cumplir los siguientes requisitos:

a) Encontrarse al corriente de sus obligaciones tributarias, con la Seguridad Social y por reintegro de subvenciones.

b) No encontrarse incurso en ninguna de las circunstancias que establece el artículo 42 de la Norma Foral 4/2018.

c) No encontrarse incurso en ninguna de las circunstancias que establece el artículo 12 de la Norma Foral 5/2005, ni sujetas a una orden de recuperación pendiente tras una decisión previa de la Comisión de la Unión Europea que haya declarado una ayuda ilegal e incompatible con el mercado común, así como las empresas en crisis, de acuerdo con la definición de las directrices sobre ayudas estatales de salvamento y de reestructuración de empresas no financieras en crisis (DO C249, 31 de julio de 2014).

El incumplimiento de los requisitos supondrá la prohibición para obtener la condición de entidad beneficiaria. Dicha prohibición subsistirá mientras concurren las circunstancias que, en cada caso, las determinen, de acuerdo con lo establecido en el artículo 12 de la Norma Foral 5/2005.





3. Onuradun izateko baldintzak dirulaguntzaren indarraldi osoan bete beharko dira.

4. Dirulaguntzen entitate onuradunek Dirulaguntzei buruzko 5/2005 Foru Arauaren 13. eta 41. artikuluetan xedatutakoa bete beharko dute. Zehazki, jasotako funtsen erabilera justifikatzen duten agiriak gorde beharko dituzte, dokumentu elektronikoak barne, egiaztapen eta kontrol ekintzetarako erabilgarriak izan daitezkeen neurrian, eta finantza-kontrolaren eginkizunak dituzten organoekin lankidetzan aritzeko betebeharra baitute.

4. artikulua. *Diruz lagundu daitekeen egitatea.*

1. Laguntza jaso ahal izango dute gutxienez 300 Mb/s-ko (bi noranzkoetan) sarbide finkoko sare publikoen estaldura hedatzen duten proiektuek (datuen transferentzia mugagabea ahalbidetzen badute, zerbitzuaren ezaugarriak aldatu gabe), laguntza eskatu aurretik hasi ez badira.

Oinarri arautzaile hauetan aipatutako abiadura guztiak eskari handieneko baldintzetarako aurreikusitakoak dira. Eskari handieneko baldintzak hauek dira: gutxienez erabiltzaileen % 10ek, denek aldi berean, operadoreak bakoitzari ematen dion gehieneko abiadura nominalarekin (beheranzko zein goranzko abiadura) transmititzen duten bakoitzean daudenak. Hori bat dator gehiegizko harpidetza tasaren ohiko definizioarekin.

Aurkeztutako proposamenek oso abiadura handiko banda zabaleko zerbitzuen estaldura emateko beharrezkoak diren azpiegituren hedapena jaso beharko dute. Zerbitzu horiek gai izan behar dira, teknologia finkoarekin, gutxienez 300 Mb/s simetrikoko abiadurako zerbitzuak emateko eskari handieneko uneetan, jarduneremu bakarra osatzen duten eta helburu gisa identifikatuta dauden zonaldeetan kokatutako higiezin-unitate guztietan (osaera I. eranskineko zerrendan zehazten da.

Dirulaguntzen gehieneko zenbatekoa milioi eta erdi (1.500.000,00) euro izango da.

Puntuaziorik handiena lortzen duen proposamenerako laguntzak baino ez dira onartuko, oinarri hauetan ezarritako ebaluazio-irizpideen arabera.

3. Las condiciones para poder ser beneficiaria habrán de mantenerse durante todo el periodo de vigencia de la subvención.

4. Las entidades beneficiarias de las subvenciones vendrán obligadas al cumplimiento de lo establecido en los artículos 13 y 41 de la Norma Foral 5/2005. En particular, tendrán obligación de conservación de los documentos justificativos de la aplicación de fondos recibidos, incluidos los documentos electrónicos, en tanto puedan ser objeto de las actuaciones de comprobación y control y obligación de colaboración con los órganos que tengan atribuidas funciones de control financiero.

Artículo 4. *Hecho subvencionable.*

1. Serán susceptibles de obtener ayuda los proyectos que contemplen la extensión de cobertura de las redes públicas de acceso fijo de, al menos, 300 Mbps en ambos sentidos (que permitan la transferencia ilimitada de datos, manteniendo las características del servicio inalteradas) y que no se hayan iniciado con anterioridad a la solicitud de la ayuda.

Todas las velocidades mencionadas en las presentes bases reguladoras están previstas en condiciones de máxima demanda. Las condiciones de máxima demanda deben entenderse como las condiciones que se dan cada vez que un mínimo del 10 por ciento de los usuarios transmite simultáneamente a la velocidad máxima nominal que les proporciona el operador individualmente, tanto en sentido descendente como ascendente, lo que se corresponde con la definición habitual de tasa de sobresuscripción.

Las propuestas presentadas deberán contemplar el despliegue de las infraestructuras necesarias para proporcionar cobertura de los servicios de banda ancha de muy alta velocidad, capaces de prestar servicios con tecnología fija en condiciones de máxima demanda a velocidades de, al menos 300 Mbps simétricos en todas las unidades inmobiliarias que se encuentren en las zonas identificadas como objetivo que conformen el único ámbito de actuación, cuya composición se define en el listado del anexo I.

La cuantía máxima de las ayudas será de un millón y medio (1.500.000,00 euros) de euros.

Únicamente se aprobarán ayudas para la propuesta presentada que obtenga mayor puntuación, de acuerdo con los criterios de evaluación establecidos en las presentes bases.





2. Proiektuek adierazi beharko dute zein den soluzio teknologikorik egokiena biztanlegune bakoitzerako, eta dirulaguntzak emateko baldintza ez da inoiz soluzio teknologiko zehatz bat hedatzea izango, baizik eta multimediatik komunikazio elektronikoko zerbitzuak denbora errealean eta deskribatutako gutxieneko abiadurarekin eskaintzea eta gutxieneko baldintza hauek betetzea:

a) Xede-eremuetan herritarrentzat eskuragarri dauden komunikazio elektronikoen zerbitzuak emateko erabili beharko dira bereziki sareak (ez dira diruz laguntzeko moduko elementutzat hartzen, batetik, erabiltzaile-multzo mugatu bati zerbitzua emateko sare pribatuak, eta bestetik, biztanlegune edo eremu sakabanatuetan azken erabiltzaileei zerbitzuak ematera zuzenean bideratuta ez dauden sare nagusiak ere).

b) Proiektuak sarbide-sareei buruzkoak izango dira, hau da, banda zabaleko sare baten segmentuak, itzulera-sarea (backhaul) azken erabiltzaileen etxearekin edo gailuekin konektatzen dutenak, banda zabaleko sareetarako estatu-laguntzei buruzko jarraibideetan (2023/C 36/01) definitzen den bezala. Sarbide-sarea handizkariaren eskaintzaren barruan egon behar da. Horrez gain, transmisio-loturak sartu ahal izango dira itzulera-sarearekin, eta sare horretan azken erabiltzaileen trafikoa gehitzen da, baldin eta tarte hori sare nagusiarekin zabalduko den sarbide-sarea konektatzeko beharrezko tarte baina ez bada.

c) Laguntzaren onuradunak 10 egun balioduneko epea izango du gutxienez 300 Mb/s-ko banda zabaleko zerbitzua (beheranzkoa nahiz goranzkoa) emateko, proiektua amaitzean estaldura duen higiezin-unitate batean kokatutako azken erabiltzaile batek kontratazio-eskaera egiten duenetik zenbatzen hasita (betiere lizentzia, okupazio- edo igarotze-eskubide espezifikoak lortu behar ez badira, edo epe hori ezin bada bete operadoreari alta ez emateko egotzi ezin zaion beste arrazoren batengatik; azken kasu horretan, alta emateko denbora neurtzeko, atzerapen horiek deskontatu ahal izango dira, aldezturik eskatzaileari jakinarazita). Horretarako, onuradunak ez badu zerbitzua operadore txikizkari gisa zuzenean emango, eskabidearekin batera merkataritza-akordio bat aurkeztu beharko du, non bete behar hori jakinarazten baita. Azken erabiltzaileei zerbitzua ematen dien operadore txikizkari batekin, gutxienez, sinatu behar da.

2. Los proyectos deberán expresar la solución tecnológica más adecuada para cada zona de población, no estando las subvenciones condicionadas al despliegue de una determinada solución tecnológica concreta, con tal que soporten los servicios de comunicaciones electrónicas multimedia en tiempo real con la velocidad mínima descrita anteriormente y cumpliendo los siguientes requisitos mínimos:

a) Las redes deberán utilizarse principalmente para la prestación de servicios de comunicaciones electrónicas disponibles para el público en las zonas objetivo (no se contemplan como elementos subvencionables las redes privadas destinadas a proveer servicio a un conjunto restringido de personas usuarias ni las redes puramente troncales no destinadas directamente a la prestación de servicios a personas usuarias finales en las unidades poblacionales o zonas diseminadas).

b) Los proyectos se referirán a redes de acceso, es decir, los segmentos de una red de banda ancha que conectan la red de retorno (backhaul) con el domicilio o con los dispositivos de los usuarios finales, tal y como se define en las Directrices relativas a las ayudas estatales a las redes de banda ancha (2023/C 36/01), y que formen parte de la oferta mayorista. Adicionalmente, se podrán incluir los enlaces de transmisión con la red de retorno, en la que se agrega el tráfico de los usuarios finales, siempre que este tramo se limite al estrictamente necesario para conectar la red de acceso que se va a desplegar con la red troncal.

c) El beneficiario de la ayuda deberá asegurar la prestación del servicio de banda ancha de al menos 300 Mbps, tanto en sentido descendente como ascendente, en el plazo de 10 días hábiles desde la solicitud de contratación por parte de un usuario final ubicado en una unidad inmobiliaria considerada cubierta a la finalización del proyecto (siempre que no se precise la obtención de licencias, derechos de ocupación o paso específicos, o que dicho plazo no pueda cumplirse por cualquier otra causa no imputable al operador para la provisión del alta, en cuyo caso se podrán descontar estos tiempos o retrasos para la medición del tiempo de alta, previa comunicación remitida al solicitante). A tal efecto, si el beneficiario no va a prestar directamente el servicio como operador minorista, junto a la solicitud deberá presentar un acuerdo comercial firmado con al menos un operador minorista que preste dicho servicio a los usuarios finales en el que se traslade esta obligación.





d) Era berean, datuak bi noranzkoetan mugarik gabe transferitzeko aukera eman beharko dute, zerbitzuaren ezaugarri guztiak aldatu gabe eta biztanle-dentsitate handiko eremuetako merkatuaren eskaintzen baldintza ekonomikoen antzekoetan.

e) Datuak transmititzeko zerbitzuaren kalitate-parametroak multimediako komunikazio elektronikoen zerbitzuak denbora errealean emateko gai direla ziurtatzea. Horretarako, indarrean dagoen Banda Zabaleko Ethernet Berria (NEBA) erreferentziako handizkariaren eskaintzaren balioak erabiliko dira erreferentzia gisa; Merkatuen eta Lehiaren Batzorde Nazionalak (CNMC) arautzen du eskaintza hori.

f) Laguntzaren xede den proiektuak hobekuntza nabarmena ekarriko du (aldaketa nabarmena edo sakona) jarduketaren xede diren eremuetara. Horretarako, inbertsio handia egin beharko da banda zabaleko sarearen azpiegiturretan, helburu diren higiezin-unitateei gaitasun handiagoak emateko, banda zabaleko zerbitzuaren eskuragarritasunari eta gaitasunari, abiadurei eta lehiari dagokienez, egun dauden sareekin edo datozen hiru urteetarako modu sinetsgarrian planifikatuta dauden sareekin alderatuta, banda zabaleko sareetarako estatu-laguntzei buruzko gidallerroetan (Batzordearen 2023/C 36/01 Komunikazioa) eta Batzordearen 2014ko ekainaren 17ko 651/2014 (EB) Erregelamenduaren 52. artikuluan ezarritakoaren arabera. Ildo horretan, hobekuntza handi hori ziurtatzeko, emandako laguntzarekin lotutako inbertsioaren % 70 baino gehiago banda zabaleko azpiegiturretan egindako inbertsioetarako izan beharko da, hau da, inolako osagai aktiborik ez duen banda zabaleko sarearen tarterako. Horren barruan sarearen zati fisikoa sartzeko, eroanbideak, zutoinak, mastak, dorreak, zuntz iluna, armairuak eta kableak barne (zuntz iluna, kobrezko kableak, etab.), Europar Batasunaren Kategorien arabeko Salbuespen Erregelamenduaren 2. artikuluan definitzen den bezala.

Eskatutako gutxieneko baldintza teknikoak edo, hala badagokio, entitate onuradunaren proposamenak jasotzen dituen baldintza hobetuak bete beharko dira txikizkariaren eta handizkariaren zerbitzuen eskaintzan, beste txikizkari batzuek eskaintako zerbitzuen erreplikagarritasun teknikoa bermatzeko entitate onuradunaren sarean.

Diruz lagundu ahal izango dira Bizkaiko Errepideei buruzko urriaren 20ko 5/2021 Foru Araua eta hura garatzeko araudia betetzearen ondoriozko

d) Igualmente deberán permitir la transferencia ilimitada de datos en ambos sentidos, manteniendo todas las características del servicio inalteradas y en condiciones económicas similares a las ofertas de mercado en zonas densamente pobladas.

e) Asegurar que los parámetros de calidad de servicio de transmisión de datos soportan los servicios de comunicaciones electrónicas multimedia en tiempo real. Para ello, se utilizarán como referencia los valores de la oferta mayorista de referencia Nuevo Ethernet de Banda Ancha (NEBA), regulada por la Comisión Nacional del Mercado de la Competencia (CNMC), que se encuentre vigente.

f) El proyecto objeto de la ayuda aportará una mejora significativa (cambio considerable o profundo) en las zonas objeto de actuación, para lo que deberá representar una nueva inversión significativa en infraestructuras de la red de banda ancha que aporte nuevas capacidades significativas a las unidades inmobiliarias objetivo en términos de disponibilidad y capacidad del servicio de banda ancha, velocidades y competencia en comparación con las redes existentes o planificadas de forma creíble en los próximos tres años, de acuerdo con lo establecido en las Directrices relativas a las ayudas estatales a las redes de banda ancha (Comunicación de la Comisión 2023/C 36/01) y en artículo 52 del Reglamento UE 651/2014, de la Comisión, de 17 de junio de 2014. En este sentido, a fin de asegurar esta mejora significativa, más del 70% de la inversión relacionada con la ayuda otorgada deberá corresponder con inversiones en infraestructuras de banda ancha, esto es, la parte de la red de banda ancha sin ningún componente activo y que comprende a la parte física de la red, incluidos conducciones, postes, mástiles, torres, fibra oscura, armarios y cables (fibra oscura, cables de cobre, etc.), tal como se define en el artículo 2.137 del Reglamento General de Exención por Categorías de la Unión Europea.

Los requisitos técnicos mínimos exigidos o, en su caso, los mejorados incluidos en la propuesta de la entidad beneficiaria, deberán ser cumplidos tanto en la oferta de servicios minoristas como en los mayoristas, con el fin de garantizar la replicabilidad técnica de los servicios minoristas ofrecidos por terceros sobre la red de la entidad beneficiaria.

Serán subvencionables los costes necesarios para atender los condicionantes derivados del cumplimiento de la Norma Foral 5/2021, de 20 de octubre, de carreteras de Bizkaia y normativa de desarrollo.





baldintzatzaileei erantzuteko beharrezkoak diren kostuak.

3. Programa honen bidez ez dira diruz lagunduko honako honen laguntza eskatu, proposatu eta jaso duten proiektuetako higiezin-unitateetan egindako jarduerak: Eraldaketa Digitalerako eta Funtzio Publikoko Ministerioko Telekomunikazioen eta Azpiegitura Digitalen Estatuko Idazkaritzaren Kohesiorako Azpiegitura Digitalak Unibertsalizatzeko Programa (BAKARRA- Banda Zabala). Halaber, laguntza publikoen edozein programaren onuradun izan diren jarduerak ez dira diruz lagunduko.

4. Dauden azpiegiturak berrerabiltzea errazteko, laguntza hauen eremu objektiboan berrerabil daitekeen azpiegitura bat duten edo kontrolatzen duten operadoreek, proposamena aurkeztean, azpiegituraren berri eman beharko diete hirugarren operadoreei, eta haien eskura jarri, Telekomunikazioei buruzko ekainaren 28ko 11/2022 Lege Orokorraren 52. artikuluan aurreikusitakoaren arabera.

5. Laguntza jasoko duten azpiegiturek eta ekipoen proiektuaren helburu zehatzari lotuta egon beharko dute, gutxienez bost urtez, proiektua amaitzen denetik zenbatzen hasita, edo beren bizitza baliagarria amaitu arte, bizitza baliagarria bost urtetik beherakoa bada. Nolanahi ere, 5.1 artikuluan handizkarien sarbidearen betebeharren iraupenari buruz ezarritakoa bete beharko da.

5. artikulua. Handizkarien zerbitzuak

1. Dirulaguntzaren onuradunak handizkarietzako sarbide eraginkorra eskaini beharko die hala eskatzen duten gainerako operadoreei, bidezko baldintzetan eta diskriminaziorik gabe, diruz lagundutako azpiegiturretara modu irekian eta diskriminazio teknologikorik ezaren printzipioa betez.

Handizkarien sarbidea—(sarbide desagregatu birtuala (VULA) izan ezik— eskaini beharko da produktu aktibo guztietarako, gutxienez, hamar urtez, baldin eta produktu hori Merkatuen eta Lehiaren Batzorde Nazionalaren (aurrerantzean, CNMC) iritziz handizkarien sarbiderako egokia bada. Ematen den sarbidearen iraupena VULAK ordeztu duen azpiegituraren bizitza baliagarriarena bestekoa izango da.

Era berean, finantzatutako sareak, gutxienez, zeharkako sarbidea, zuntz ilunerako sarbidea eta azpiegiturarako sarbidea eman beharko ditu, kaleko banagailuak, zutoinak, mastak, dorreak eta eroanbideak barne. Horrez

3. No serán subvencionables a través de este programa las actividades realizadas en las unidades inmobiliarias incluidas en proyectos para los que se hubiera solicitado, propuesto y concedido ayuda con cargo al Programa de Universalización de Infraestructuras Digitales para la Cohesión – Banda Ancha (ÚNICO – Banda Ancha) de la Secretaría de Estado de Telecomunicaciones e Infraestructuras Digitales del Ministerio para la Transformación Digital y de la Función Pública o cualquier otro programa de ayudas públicas.

4. Al objeto de facilitar la reutilización de las infraestructuras existentes, todo operador que posea o controle una infraestructura susceptible de ser reutilizada en la zona objetivo de estas ayudas y presente su propuesta, deberá informar y dar acceso a la misma a terceros operadores, de acuerdo con lo previsto en el artículo 52 de la ley 11 /2022, de 28 de junio, General de Telecomunicaciones.

5. Las infraestructuras y equipos que sean objeto de ayuda deberán permanecer afectos al fin concreto del proyecto durante un periodo mínimo de cinco años, contados a partir de la finalización del mismo, o hasta el final de su vida útil si esta fuera menor de cinco años. En cualquier caso, debe respetarse lo establecido en el artículo 5.1 en relación con la duración de las obligaciones de acceso mayorista.

Artículo 5. Servicios mayoristas.

1. La beneficiaria de la subvención estará obligada a ofrecer a los demás operadores que lo soliciten, acceso mayorista efectivo, en condiciones equitativas y no discriminatorias, a las infraestructuras subvencionadas de forma abierta y respetando el principio de no discriminación tecnológica.

Deberá concederse acceso mayorista efectivo durante al menos diez años para todos los productos activos, excepto el acceso desagregado virtual (VULA), siempre que la Comisión Nacional de los Mercados y de la Competencia (en adelante CNMC) mantenga este producto como adecuado para el acceso mayorista, el cual se concederá durante un período de tiempo igual a la vida útil de la infraestructura a la que sustituye VULA.

Asimismo, la red financiada deberá proporcionar, como mínimo, acceso indirecto, acceso a la fibra oscura y acceso a la infraestructura, incluidos distribuidores en la calle, postes, mástiles, torres y conducciones. Adicionalmente,





gain, desagregazio fisikoa edo sarbide desagregatu birtuala (VULA) emango du, betiere CNMCK azken produktu hori egokitzen jotzen badu handizkarien sarbiderako.

Sarbideko baldintza berdinak aplikatuko dira sare osoan, lehendik dauden azpiegiturak erabili diren sareko tarteetan barne. Sarbide-betebeharrak betearaziko dira, jabetzaren, kudeaketaren edo funtzionamenduaren aldaketak gorabehera. Sareak hiru eskatzaileri, gutxienez, emango die sarbidea, eta sarearen ahalmenaren % 50, gutxienez, sarbidearen eskatzaileen eskura jarri behar du. Handizkarien sarbidea gauzatzeko eta sarbide-eskatzaileei zerbitzuak ematea ahalbidetzeko, Estatuko funtsekin finantzatu ez diren eta laguntzaren onuradunak agian hedatu ez dituen sarearen tarteetarako soilik emango da sarbidea; adibidez, ekipamendu aktiboetarako sarbidea emango da, banda zabaleko azpiegitura bakarrik finantzatuta badago ere.

Azpiegitura berrietarako sarbidea (hodiak, zutoinak, banagailuak edo zuntz iluna) dagokion sare-elementuaren bizitza baliagarrian eman behar da. Diruz lagundutako azpiegitura sortu berriek sarbide-eskatzaileen egungo eskariari eta bilakaerari erantzuteko behar bezain zabalak izan beharko dute¹. Azken hori osagarria da, eta ez ditu eragotziko CNMCK arlo horretan ezarri ditzakeen erregelamenduzko betebeharrak.

Aipatutako handizkarien zerbitzu guztiak bidezko baldintzetan eta diskriminaziorik gabe eskaini beharko dira, 651/2014 (EB) Erregelamenduaren 52. artikuluko 8. eta 9. zenbakietan aurreikusten den bezala. Erregelamendu horrek barruko merkatuarekin bateragarriak diren laguntza-maila batzuk adierazten ditu, Tratatuaren 107. eta 108. artikulua betetzeko.

proporcionará la desagregación física o el acceso desagregado virtual (VULA), siempre que la CNMC mantenga este último producto en la consideración de adecuado para el acceso mayorista.

Se aplicarán las mismas condiciones de acceso a la totalidad de la red, incluidas las partes de la red en las que se hayan utilizado infraestructuras existentes. Las obligaciones de acceso serán ejecutadas con independencia de cualquier cambio en la propiedad, la gestión o el funcionamiento de la red. La red dará acceso al menos a tres solicitantes de acceso y pondrá al menos el 50 % de la capacidad a disposición de los solicitantes de acceso. Con el fin de hacer efectivo el acceso mayorista y de permitir a los solicitantes de acceso prestar servicios, el acceso mayorista solo se concederá para partes de la red que no hayan sido financiadas con fondos estatales y que tal vez no hayan sido desplegadas por el beneficiario de la ayuda, por ejemplo concediendo acceso a los equipos activos, aunque solamente esté financiada la infraestructura de banda ancha.

El acceso a nuevas infraestructuras (como conducciones, postes, distribuidores o fibra oscura) debe concederse durante la vida útil del elemento de red de que se trate. Las infraestructuras de nueva creación subvencionadas deberán ser lo bastante anchas para satisfacer la demanda actual de los solicitantes de acceso y su evolución¹. Esto es complementario y se entiende sin perjuicio de las obligaciones reglamentarias que haya impuesto la CNMC en esta materia.

Todos los servicios mayoristas mencionados deberán ofrecerse en condiciones equitativas y no discriminatorias, tal como se prevé en el artículo 52 puntos 8 y 9 del Reglamento (UE) 651/2014 por el que se declaran determinadas categorías de ayudas compatibles con el mercado interior en aplicación de los artículos 107 y 108 del Tratado.

¹ Adibidez, eta sarearen espezifikotasunaren arabera, zuntza hartzeko eroanbide berriak eraikitzen direnean, edukiera nahikoa izan beharko lukete, gutxienez, zuntzeko hiru kable independente sartzeko eta haietako bakoitzak zuntz batzuk izateko; beraz, hainbat enpresari zerbitzua emateko gai izan beharko lukete. Lehendik dagoen azpiegituraren edukiera mugatuta dagoenean eta, «iriste-ordena»ren printzipioaren arabera, gutxienez hiru zuntz-kable independentetara sarbidea eman ezin duenean, laguntzarekin finantzatutako sareko operadoreak edukieraren % 50 (bereziki, zuntz iluna) gutxienez jarri beharko du sarbide-eskatzaileen eskura.

¹ Por ejemplo, y en función de la especificidad de la red, cuando se construyan nuevas conducciones para albergar fibra, estas deberían tener cabida para, al menos, tres cables de fibra independientes y para que cada uno albergue varias fibras y, por lo tanto, sean capaces de dar servicio a varias empresas. Cuando la infraestructura existente tenga limitaciones de capacidad [llegada], el operador de la red financiada con la ayuda deberá poner a disposición de los solicitantes de acceso al menos el 50 % de la capacidad (en particular, fibra oscura), y no pueda proporcionar acceso, al menos, a tres cables de fibra independientes, según el principio de «orden de llegada», el operador de la red financiada con la ayuda deberá poner a disposición de los solicitantes de acceso al menos el 50 % de la capacidad (en particular, fibra oscura).





Handizkarien sarbide hori ahalik eta aurrerapen handienarekin eman beharko da, dagozkion zerbitzuak ematen hasi aurretik, eta laguntzaren onuradunak txikizkarien zerbitzuak emateko asmoa duenean, zerbitzu horiek abian jarri baino sei hilabete lehenago gutxienez.

Eskainitako sarbidearen abiadura, gutxienez, proiektuaren oinarrietan eskatutakoa izango da, eta, nolana ere, handizkariaren zerbitzuak entitate onuradunak eskainitako txikizkarien zerbitzuen erreplikagarritasuna eskaini beharko du.

2. Handizkarien sarbideko produktuen prezioak erreferentzia-balio eta prezioak finkatzeko printzipio hauetako batean oinarrituko dira, eta gehieneko prezioztat hartuko dira:

- a) Handizkarien batez besteko prezio argitaratuak, lehenasunezkoak Espainiako eremu konparagarrietan eta lehiakorragoetan.
- b) CNMCK finkatutako edo onartutako prezio arautuak.
- c) Kostuetara bideratzeko irizpidea edo esparru sektorialarekin bat ezarritako metodologia, sarearen operadoreak emandako laguntzak kontuan hartuta.

Nolana ere, operadorea era bertikalean integratuta dagoenean, zehaztutako prezioek txikizkarien eskaintzen erreplikagarritasuna ahalbidetu beharko dute, entitate onuradunaren adar txikizkariarekin diskriminaziorik ez gertatzeko.

3. CNMCK laguntza hori ematen duen agintaritzari aholku eman ahal dio, oinarri honetan aipatzen diren handizkarien sarbide-prezioen eta -baldintzen arloan. Gainera, sarbidea eskatzen duten operadoreen eta laguntzen operadore onuradunen arteko gatazkak ebartziko ditu, eta horretarako, jarraibideak emango ditu atal honetan aipatutako handizkarien sarbidearen betebeharra betetzeko, Merkatuen eta Lehiaren Batzorde Nazionala sortzeko ekainaren 4ko 3/2013 Legean ezarritakoaren arabera, merkatuko baldintzak eta jasotako laguntza kontuan hartuta.

4. Erregulazioaren mendeko merkatuetan, laguntza jaso duen operadorea Merkatuan Botere Nabarmena duen operadorea bada, argi eta garbi jakinarazi beharko dizkie sektoreari eta azken erabiltzaileei laguntza publikoen babesean eraikitako sareen baldintza espezifikoak (ez datoz bat nahitaez erregulazioarekin).

Este acceso mayorista deberá concederse con la mayor antelación posible antes de empezar a prestar los servicios pertinentes y, cuando el beneficiario de la ayuda también tenga intención de prestar servicios minoristas, al menos seis meses antes de la puesta en marcha de esos servicios minoristas.

La velocidad de acceso ofrecida será, como mínimo, la requerida en las bases del proyecto y, en todo caso, el servicio mayorista deberá permitir la replicabilidad de los servicios minoristas ofrecidos por la entidad beneficiaria.

2. Los precios de los productos de acceso mayorista efectivo se basarán en alguno de los siguientes valores de referencia y principios de fijación de precios, que serán considerados como precios máximos:

- a) Los precios mayoristas medios publicados prevalentes en zonas comparables y más competitivas existentes en España.
- b) Los precios regulados ya fijados o aprobados por la CNMC
- c) Una orientación a costes o una metodología establecida de acuerdo con el marco sectorial, todo ello teniendo en cuenta las ayudas recibidas por el operador de la red.

En cualquiera de los casos, cuando se trate de un operador integrado verticalmente, los precios definidos deberán permitir la replicabilidad de las ofertas minoristas y que no se produzca una discriminación con la rama minorista de la entidad beneficiaria.

3. La CNMC podrá asesorar a la autoridad que concede esta ayuda en materia de precios y condiciones de acceso mayorista a que se refiere esta base. Además, resolverá los conflictos entre operadores solicitantes de acceso y operadores beneficiarios de las ayudas, dictando instrucciones para el efectivo cumplimiento de la obligación de acceso mayorista a la que se refiere este apartado, de acuerdo con lo establecido en la Ley 3/2013, de 4 de junio, de creación de la Comisión Nacional de los Mercados y de la Competencia, teniendo en cuenta las condiciones de mercado y la ayuda recibida.

4. Si la entidad beneficiaria de la ayuda tiene la consideración de operador con Poder Significativo de Mercado (PSM) en los mercados sujetos a regulación ex ante, deberá informar, de forma clara, al sector y a los usuarios finales sobre las condiciones específicas de las redes construidas al amparo de ayudas públicas, que no necesariamente coinciden con la regulación ex ante.





6. artikulua. Diruz lagundu daitezkeen gastuak eta inbertsioak.

1. Diruz lagundu daitezkeen gastu eta inbertsiotzat hartuko dira hautaturiko proiektuari zuzenean loturik eta hura gauzatzeko behar-beharrezkoak direnak, baldin eta eskaera egiten denetik proiektua amaitu arteko aldiaren barruan egiten badira. Gainera, proiektua gauzatu izana egiaztatzen duten dokumentuak egon behar dira, eta proiektuek bat etorri behar dute estatuko eta Europar Batasuneko araudi aplikagarriarekin. Inbertsio eta gastuak ez dira diruz lagunduko, baldin eta eskaera egin aurretik konprometitu edo egin badira.

2. Diruz laguntzeko moduko inbertsio eta gastuak hartzen dira proiektuan jasotako sareen hedapenarekin zuzenean lotutako kontzeptu hauek:

- a) Azpiegitura pasiboak eta obra zibila.
- b) Ekipamendu aktiboa eta beste material batzuk.
- c) Langile-gastuak (onartutako aurrekontuaren % 7, gehienez). Kontzeptu horretan jasotzen da entitate onuraduneko teknikariek proiektuan zuzenean emandako orduen kostua. Kontzeptu horretatik kanpo geratzen dira administrazio, kontabilitate, giza baliabide, kudeaketa, marketin, zuzendaritza eta antzeko arloetako langileen kostuak.
- d) Proiektuaren helburu den banda zabaleko sarea sortzeak edo berritzeak zeharkako kostuak sortzen baditu, proiektuari egotz dakizkiokeen bestelako kostu orokorrak edo zeharkakoak diruz lagundu ahal izango dira, diruz lagundu daitezkeen langileen gastuaren (kostu zuzenetan jasotakoa) % 15era arte.
- e) Dirulaguntzaren justifikazio-kontuaren proiektuaren kostuen auditoretza-kostuak. Auditoretzaren kostua diruz lagundu ahal izango da, emandako laguntzaren % 1era arte, eta gehienez 10.000 euroko laguntza eman daiteke.

3. Laguntzaren bidez jarduketaren helburu diren eremuetara hobekuntza nabarmena ekarriko dela bermatzeko, EBko Kategorien arabera Salbuespenen Erregelamendu Orokorrean jasotzen den bezala, inbertsioaren % 70, gutxienez, banda zabaleko

Artículo 6. Gastos e inversiones subvencionables.

1. Tendrán la consideración de gastos e inversiones subvencionables los que estén directamente relacionados y sean necesarios para la realización del proyecto que resulte seleccionado y que se materialice en el período que va desde la presentación de la solicitud hasta la fecha de finalización del proyecto, que exista constancia documental sobre su realización y que sean conformes con la normativa nacional y comunitaria aplicable. En ningún caso serán elegibles las inversiones y gastos que se hubieran comprometido o realizado con anterioridad a la presentación de la solicitud.

2. Se consideran inversiones y gastos elegibles los siguientes conceptos directamente relacionados con el despliegue de las redes contempladas en el proyecto:

- a) Infraestructuras pasivas y obra civil.
- b) Equipamiento activo y otros materiales.
- c) Gastos de personal (hasta un máximo del 7% del presupuesto aceptado). Se incluyen en este concepto el coste de las horas directamente dedicadas al proyecto por personal técnico propio de la entidad beneficiaria. Queda excluido de este concepto el coste de personal de administración, contabilidad, recursos humanos, gestión, marketing, dirección y similares.
- d) Otros costes generales o indirectos imputables al proyecto cuando la creación o renovación de la red de banda ancha, objeto del proyecto, genere costes indirectos, serán elegibles, con el límite del 15% del gasto de personal subvencionable incluido en costes directos.
- e) Costes de auditoría de costes del proyecto de la cuenta justificativa de la subvención. El coste de auditoría será subvencionable hasta un máximo del 1% de la ayuda concedida, con el límite de 10.000 euros.

3. Con el objeto de asegurar que la ayuda aportará una mejora significativa en las zonas objeto de actuación, tal como se recoge en el Reglamento General de Exenciones por Categorías de la UE, al menos el 70% de la inversión deberá corresponder a la infraestructura de





azpiegiturarako izan beharko da, oinarri hauetako 4. artikuluko 2f atalean jasotzen den bezala.

4. Diruz lagundu daitezkeen gastuak 5/2005 Foru Arauaren 29. artikulua xedatutakora egokitu beharko dira. Dirulaguntza jaso dezaketen gastuen eskuratzeko kostua ezingo da inola ere izan merkatuko balioa baino handiagoa. Diruz lagundu daitezkeen gastuaren zenbatekoa handiagoa bada Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legean kontratu txikietarako ezarritakoa baino, entitate onuradunak, gutxienez, hiru hornitzailearen eskaintzak eskatu beharko ditu, obra egiten hasi, zerbitzua eman edo ondasuna emateko konpromisoa hartu baino lehen. Hala ere, hori ez da beharrezkoa izango baldin eta, obraren, zerbitzuaren edo ondasunaren ezaugarri bereziengatik, haiek eman edo hornitzen dituen hainbeste entitatetik ez badago merkatuan.

5. Zeharkako zergak ez dira inongo kasutan diruz laguntzeko gastutzat hartuko, baldin eta berreskuratzeak edo konpentsatzekoak izan badaitezke. Errentaren gaineko zerga pertsonalak ere ezin izango dira diruz laguntzeko gastutzat hartu. Ez da diruz laguntzeko gastutzat joko fakturretan jasanarazitako Balio Erantsiaren gaineko Zerga (BEZ).

6. Dirulaguntza emateko ebazpenean jasotako diruz laguntzeko moduko kontzeptuetako bakoitzari lotutako laguntzaren zenbatekoak laguntzaren gehieneko mugak dira.

7. 5/2005 Foru Arauaren 29.4.a) artikulua xedatutakoa aplikatuz, ondorio horretarako, laguntzaren xede diren azpiegiturak eta ekipoen proiektuaren helburuei atxikita egon beharko dute, gutxienez, hamar urtez, proiektua amaitzen denetik edo bizitza baliagarria amaitzen denetik, azkena hamar urtetik beherakoa bada.

8. Inola ere ez dira diruz lagunduko eskabidea aurkeztu aurretik konprometitu edo egin diren inbertsioak eta gastuak.

7. artikulua. Laguntzen zenbatekoa eta mugak.

1. Oinarri arautzaile hauen esparruan eman beharreko dirulaguntza diruz lagundu daitezkeen gastu eta inbertsioen % 90 izango da, gehienez ere.

2. Foru-agindu honen babesaren pean emandako dirulaguntza beste diru-laguntza, laguntza, sarrera edo baliabide batzuekin bateragarri izango da, baldin eta

banda ancha, tal como se recoge en el artículo 4, apartado 2f de las estas bases.

4. Los gastos subvencionables se ajustarán a lo dispuesto en el artículo 29 de la Norma Foral 5/2005. En ningún caso el coste de las inversiones o gastos subvencionables podrá ser superior al valor de mercado. Cuando el importe del gasto subvencionable supere las cuantías establecidas en la Ley 9/2017, de 8 de noviembre, de Contratos del Sector Público para el contrato menor, la entidad beneficiaria deberá solicitar como mínimo tres ofertas de diferentes proveedores, con carácter previo a la contratación del compromiso para la obra, la prestación del servicio o la entrega del bien, salvo que por sus especiales características no exista en el mercado suficiente número de entidades que los realicen, presten o suministren.

5. En ningún caso se considerarán gastos subvencionables los impuestos indirectos cuando sean susceptibles de recuperación o compensación ni los impuestos personales sobre la renta. No tendrá la consideración de gasto subvencionable el Impuesto sobre el Valor Añadido (IVA) repercutido en factura.

6. Los importes de la ayuda asociados a cada uno de los conceptos subvencionables que figuren en la resolución de concesión representan los límites máximos de ayuda.

7. En aplicación de lo dispuesto en el artículo 29.4.a) de la Norma Foral 5/2005, las infraestructuras y equipos que sean objeto de ayuda deberán permanecer afectos a los objetivos del proyecto durante un periodo mínimo de diez años a partir de la finalización del mismo o hasta el final de su vida útil, si esta fuera menor de diez años.

8. En ningún caso serán subvencionables las inversiones y gastos que se hubieran comprometido o realizado con anterioridad a la presentación de la solicitud.

Artículo 7. Cuantía y compatibilidad de las ayudas.

1. La subvención a conceder en el marco de las presentes bases reguladoras supondrá como máximo el 90% de los gastos e inversiones subvencionables.

2. La ayuda que se otorgue al amparo de las presentes bases reguladoras no es compatible con otras ayudas, ingresos o recursos que se otorguen para la





Estatuko nahiz Europar Batasuneko beste edozein administrazio edo entitate publiko zein pribatuk edota nazioarteko erakundeek helburu berarekin emandakoak badira.

8. artikulua. Gauzatzeko epea.

1. Proiektuak gauzatzeko gehieneko epea 24 hilabetekoa izango da, laguntzak eman direla jakinarazten den egunetik zenbatzen hasita.
2. Hala ere, esandako epea luzatu ahalko da, baldin eta enpresak hedapen-lanak hasi baditu ebazpena jakinarazi den unetik aurrera, baina soilik atzerapena telekomunikazio-operadorearekin zerikusirik ez duten arrazoiengatik gertatu dela behar bezala justifikatzen bada.
3. Lanen burutzapena ezin izango da inola ere 2023ko ekainaren 1etik aurrera luzatu, ordurako amaituta egon beharko baita finantzatutako proiektua.

9. artikulua. Eskabideak aurkezteko epea eta eskabideen gehieneko kopurua.

1. Eskabideak aurkezteko epea hilabetekoa izango da, deialdia Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunetik zenbatzen hasita.
 2. Eskaera bakarra onartuko da komunikazio elektronikoen operadore bakoitzeko.
- Enpresa beraren eskaera-kopuruak muga hori gainditzen badu, lehenik jasotako eskabidea bakarrik ebaluatuko da, eta gainerako eskabideak automatikoki ezetsiko dira.

10. artikulua. Laguntzak emateko prozedura.

Norgehiagoka da dirulaguntzak emateko erabiliko den prozedura; horretarako, deialdi eta hautaketa-prozedura bakarrak egingo dira.

Foru-dekretu honen xedapenak betetzeko, honako hau jotzen da norgehiagoka prozeduratzat: dirulaguntzak emateko, aurkeztu diren eskabideak erkatu egiten dira, jarduera-arlo eta -atal bakoitzean aurretik ezarritako balorazio irizpideen arabera, lehentasun hurrenkera bat ezartzeko, eta puntu gehien jaso dutenei dirulaguntza adjudikatzen zaie erabilgarri dagoen kredituaren arabera.

misma finalidad, procedentes de cualesquiera Administraciones Públicas o Entes Públicos o privados, nacionales, de la Unión Europea o de otros organismos internacionales.

Artículo 8. Plazo de ejecución.

- 1.. El plazo de presentación de solicitudes de estas ayudas será de un mes y comenzará al día siguiente a la publicación de la presente convocatoria en el BOB.
- 2.. No obstante, este plazo podrá ser ampliable, siempre que la empresa haya iniciado las tareas para el despliegue desde el momento de la comunicación de la resolución, y únicamente en los casos en los que se justifique debidamente que el retraso sea debido a causas ajenas a la propia operadora de telecomunicaciones.
- 3.. En ningún caso podrá extenderse la ejecución más allá del 25 de abril de 2027, fecha en la que deberá estar concluida la ejecución del proyecto financiado.

Artículo 9. Plazo de presentación y máximo de solicitudes.

1. El plazo de presentación de solicitudes de estas ayudas será de un mes y comenzará al día siguiente a la publicación de la presente convocatoria en el «Boletín Oficial de Bizkaia».
2. Se admitirá una única solicitud por Operador de Comunicaciones Electrónicas.

Si el número de solicitudes de una misma empresa supera este límite, se evaluará únicamente las solicitudes recibidas en primer lugar y desestimará automáticamente el resto de las solicitudes.

Artículo 10. Procedimiento de concesión.

El procedimiento de concesión de las subvenciones será el de concurrencia competitiva, mediante procedimiento selectivo único.

Se entiende, a los efectos del presente Decreto Foral, como concurrencia competitiva el procedimiento por el que la concesión de las subvenciones se realiza mediante la comparación de las solicitudes presentadas, a fin de establecer una relación entre las mismas de acuerdo con los criterios de valoración fijados en cada una de las áreas y secciones correspondientes, y adjudicar, dentro del crédito disponible, aquella que haya obtenido mayor valoración.





11. artikulua. *Jardute-irizpideak.*

1. Honako taula honetan aurkezten diren baldintza eta balorazio-irizpide hauen arabera balioetsiko dira aurkeztutako proiektuak:

Z	Irizpideak	Puntuak
1	Jarduketa-eremuko biztanlegune sakabanatueta higitze-unitate guztietan banda zabal ultralasterren estaldura errazteko beharrezko inbertsioaren eraginkortasuna, l. eranskinaren arabera (formularen arabera aplikatzekoa)*	60
2	Gauzatze-proiektu teknika, proiektuaren zehaztapen- eta egokitzapen-maila: – Aukeratutako irtenbide teknologikoaren egokitasuna eta jasangarritasuna. 10 puntu, gehienez. – Faseen eta mugarren identifikazioa. 4 puntu, gehienez. – Jardueren eta inplikaturako baliabideen xehetasunak. 3 puntu, gehienez. – Lehendik dagoen azpiegituraren berrerrabilera. 3 puntu, gehienez.	20
3	Eragin sozioekonomikoa: – Enplegua eta jardura ekonomikoa sortzea biztanlegune horietan. 7 puntu, gehienez. – Xede-biztanleguneetatik hurbil dauden beste batzuetan sareak hedatzea errazteko eragina. 3 puntu, gehienez.	10
4	Ekonomia- eta finantza-kudeaketa: – Negozio-planaren amaiera. 2 puntu, gehienez. – Eskarien balioespenen sentikortasun-azterketa. 2 puntu, gehienez. – Laguntzaren behararen	6

Artículo 11. *Criterios de evaluación.*

1. Los proyectos presentados serán valorados de acuerdo a los siguientes requisitos y criterios de valoración, presentados en la siguiente tabla:

N	Criterios	Puntos
1	Eficiencia de la inversión necesaria para facilitar la cobertura de banda ancha ultrarrápida en todas las unidades inmobiliarias de las zonas diseminadas de población del ámbito de actuación de acuerdo con el anexo I (de aplicación por fórmula)*	60
2	Proyecto técnico de ejecución, grado de definición y adecuación del proyecto: – Adecuación y sostenibilidad de la solución tecnológica elegida. Hasta 10 puntos. – Identificación de las fases e hitos. Hasta 4 puntos. – Detalle de actividades y recursos involucrados. Hasta 3 puntos. – Aprovechamiento de infraestructura existente. Hasta 3 puntos	20
3	Impacto socioeconómico: - Creación de empleo y actividad económica en estas unidades poblacionales. Hasta 7 puntos. - Impacto en facilitar los despliegues de redes en otras unidades poblacionales próximas a los objetivos. Hasta 3 puntos.	10
4	Viabilidad económica y financiera: – Concreción del plan de negocio. Hasta 2 puntos. – Análisis de sensibilidad de las estimaciones de demanda. Hasta 2 puntos. – Justificación de la necesidad de	6





	identifikazioa. 2 puntu, gehienez.	
5	Kontingentzia-plana: — Kontingentzia-planaren kalitatea eta zehaztasuna balioetsiko dira; plan horretan, aurreikusitako arriskuak eta prebentzio- eta arintze-neurriak jaso behar dira, aurreikusitako gauzatze-epeen barruan estaldura-helburuak betetzen direla ziurtatzeko.	4
	GUZTIRA	100

* * «Inbertsioaren eraginkortasuna» irizpideari dagokionez, adierazi behar da aurkeztutako proposamen bakoitzari (BEZik gabe) jarduketaren eremu bererako puntuak formula honen arabera emango direla:

$$P_o = 51 \times (I_m / I_o).$$

Formula horretan:

- P_o = Ebaluatzen ari den eskaintzari esleitutako puntuak
- I_m = Gutxieneko laguntzaren zenbateko osoa, jarduera-eremura aurkeztutako proposamen guztien artean
- I_o = Ebaluatzen ari den enpresak eskatutako laguntzaren zenbateko osoa.

«Laguntzaren zenbateko osoa» da eskatzaileak aurkeztutako diruz lagundu daitezkeen kontzeptu guztien baturaren eta eskatutako laguntzaren ehunekoaren arteko biderkadura (laguntzaren intentsitatea).

Balioespen diskrezionalaren bidez ebaluatu daitezkeen irizpideei gagozkiela, proiektu bakoitzean azpi-irizpide bakoitzerako deskribatutako alderdiak sailkatuz egingo da balorazio hori, aurreko taulan adierazitako gehieneko puntuazioaren honako baremazio honen arabera:

- Bikaina: % 100
- Ondo: % 75
- Nahikoa: % 50
- Gutxi: % 25
- Gutxiegi: % 0

Operadoreek I. eranskinean ageri den zerrendan jasotako biztanleguneetako higiezin-unitate guztietan

	la ayuda. Hasta 2 puntos.	
5	Plan de contingencia: — Se valorará la calidad y concreción del plan de contingencia que incluya los riesgos y las medidas de prevención y mitigación contempladas para asegurar el cumplimiento de los objetivos de cobertura dentro de los plazos de ejecución previstos.	4
	TOTAL	100

* En referencia al criterio «Eficiencia de la inversión», indicar que los puntos que se asignarán a cada propuesta presentada (IVA excluido) para el mismo ámbito de actuación, se hará en función de la siguiente formula:

$$P_o = 51 \times (I_m / I_o).$$

Donde:

- P_o = Puntos asignados a la propuesta cuya oferta se está evaluando
- I_m = Importe global de ayuda mínimo de entre todas las propuestas presentadas al ámbito de actuación.
- I_o = Importe global de ayuda solicitado por la empresa cuya propuesta se está evaluando

Se entiende por «importe global de ayuda» el producto entre la suma de todos los conceptos subvencionables, presentados por el solicitante, por el porcentaje de ayuda solicitado (intensidad de la ayuda).

Para los criterios evaluables mediante valoración discrecional, ésta se realizará mediante la clasificación de los aspectos descritos para cada subcriterio en cada proyecto atendiendo a la siguiente baremación de la puntuación máxima indicada en la tabla anterior:

- Excelente: 100%
- Bien: 75%
- Suficiente: 50%
- Insuficiente: 25%
- Muy insuficiente: 0%

Se analizarán individualmente cada una de las solicitudes que presenten los distintos operadores para dotar de





estaldura emateko aurkezten dituzten eskaerak banan-banan aztertuko dira, eta aipatutako irizpideak aplikatuz puntuazioa esleituko zaio eskabide bakoitzari. Komunikazio elektronikoen operadore bakoitzari puntuazio jakin bat emango zaio, oinarri hauetan ezarritako irizpideen arabera. Puntuazio guztiak handienetik txikienera antolatu ondoren, puntuazio handiena duen eskabideari dirulaguntza emateko proposamena egingo da.

Beraz, oinarri hauen esparruan eman beharreko dirulaguntza ezarritako irizpideetatik puntu gehien lortzen dituen komunikazio elektronikoen operadoreari esleituko zaio.

Dirulaguntza emateko behin betiko proposamenak entitate onuradunaren identifikazioa jasoko du, bai eta xede-biztanlegune sakabanatu bakoitzeko honako alderdi hauek ere: proiektua edo finantzatutako konponbidea, gauzatzeko epea eta proposatutako dirulaguntzaren zenbatekoa. Ukatutako laguntza-eskaerei dagokienez, ukatzeko arrazoiak adieraziko ditu proposamenak.

2. Aurreko paragrafoan ezarritakoa gorabehera, oso abiadura handiko banda zabalaren estaldura ematen duten azpiegiturak hedatzea helburu ez duten proiektuak, l. eranskinean jasotako xede-eremu guztietan zerbitzuak gutxienez 300 Mb/s-ko abiaduran (goranzkoan eta beheranzkoan) emateko gai direnak, oinarri arautzaile hauetan ezartzen diren betekizun eta baldintzak beteta, zuzenean ezetsi ahalko dira, balioetsi beharrik gabe.

12. artikulua. Aurkeztu beharreko agiriak.

1. Foru-dekretu honetako dirulaguntzak eskuratu nahi dituzten entitateek artikulua honetan adierazitako dokumentazioa bidali beharko dute Azpiegituretarako eta Lurralde Garapenerako Sailera.

2. Eskabidea egitean aurkeztu beharreko agiriak:

2.1. Eskabidean bertan jasotako alderdiak:

a) Eskatzailearen edo erakundearen legezko ordezkariaren erantzukizunpeko adierazpena, bertan jasotako informazioaren egiazkotasunari buruzkoa. Honako informazio hauei dagokie adierazpena:

- i. 4/2018 Foru Arauaren 42. artikuluan ezarritako ezein egoeratan sartuta ez egotea.

cobertura en todas las unidades inmobiliarias pertenecientes a todas las zonas poblacionales incluidas en el listado del anexo I, aplicando los citados criterios a cada solicitud y asignando, a cada una, una puntuación. A cada operador de comunicaciones electrónicas se le asignará una puntuación en función de los criterios establecidos en las presentes Bases. Una vez ordenadas, de mayor puntuación a menor, se hará la propuesta de concesión a la solicitud que tenga mayor puntuación.

Por tanto, la subvención a conceder en el marco de la presentes Bases se adjudicará al operador de comunicaciones electrónicas que obtenga el mayor número de puntos sumados de los criterios establecidos.

La propuesta definitiva de concesión incluirá la identificación de la entidad beneficiaria, así como los siguientes aspectos por cada zona diseminada de población objetivo: proyecto o solución financiada, plazo de ejecución e importe de la subvención propuesta. Respecto a las solicitudes de ayuda denegadas, la propuesta expresará los motivos de dicha denegación.

2. No obstante lo establecido en el apartado anterior, los proyectos que no tengan por objetivo el despliegue de infraestructuras que proporcionen cobertura de banda ancha de muy alta velocidad, capaces de prestar servicios a velocidades de al menos 300 Mbps, tanto en sentido descendente como ascendente en la totalidad de las zonas objetivo incluidas en el anexo I, con los requisitos y condiciones que se establecen en estas bases reguladoras, podrán ser desestimados directamente sin que sea necesaria su valoración.

Artículo 12. Documentación a presentar.

1. Las entidades que deseen acogerse a las subvenciones del presente Decreto Foral deberán remitir al Departamento de Infraestructuras y Desarrollo Territorial la documentación indicada en este artículo.

2. Documentación a aportar en el momento de la solicitud:

2.1. Aspectos incluidos en la solicitud:

a) Una declaración responsable de la persona solicitante o del representante legal de la entidad respecto de la veracidad de la información que aparece recogida en la misma, y que, a continuación, se detalla:

- i. No encontrarse incurso en ninguna de las circunstancias que establece el artículo 42 de la Norma Foral 4/2018





ii. 5/2005 Foru Arauaren 12. artikulua ezartzen dituen inguruabarretako batean ere ez egotea; laguntza bat legez kontraktat edo barnermerkatuarekin bateraezintzat adierazi duen Europako Batzordearen aurretiko adierazpen baten ondoren laguntza hori berreskuratzeko emandako agindu bati lotuta ez egotea; krisian dagoen enpresa ez izatea, krisian dauden enpresa ez-finantzarioak salbatzeko eta berregituratzeko estatu-laguntzei buruzko zuzentarauak (EBAO C249, 2014ko uztailaren 31koa) ematen duen definizioaren arabera.

iii. 5/2005 Foru Arauak onuradun izateko xedatzen dituen beste alderdi guztiak betetzen dituela erakundeak

Eskatzaileak arestian aipatu dugun erantzukizunpeko adierazpenean jasotako datuen bat faltaz badu, indarrean dagoen zehapen-araubide administratibo eta penalaren eraginpean geratuko da.

2.2. Agiri osagarriak:

a) peradore izaera: eskatzaileak behar bezala gaitutako operadorearen izaera duela egiaztatzen duen agiria aurkeztu beharko du, hau da, Telekomunikazioei buruzko ekainaren 28ko 11/2022 Lege Orokorren 7. artikulua araututako Operadoreen Erregistroan inskribatuta dagoela egiaztatzen duen agiria.

b) Memoria, honako hauek jasota:

i. Proiektuaren deskribapen orokorra (gehienez 2 orrialde), proiektuaren laburpen exekutibo gisa.

ii. Proiektuaren deskribapen teknikoa, honako hauek jasota:

- Aukeratutako irtenbide teknologikoa, proiektuaren xede den sarbide-sarearen deskribapena eta topologia, eta aurreikusitako sarbide-sarearen zentralaren edo goiburuaren kokapena, nahiz eta bertan inbertsiorik ez bideratu. Horretarako, bloke-diagramak jasoko dira, behar bezala azalduta, errazago uler daitezten, bai eta eremura egokitzen direlako eta epe ertain-luzean iraungo dutelako justifikazioa ere.
- Sarea egokitzeko edo sortzeko obra-unitateen identifikazioa, kuantifikazioa eta dimentsionamendua, bai azpiegitura pasiboak eta obra zibilar dagokienez, bai ekipamendu aktiboari dagokienez,

ii. No encontrarse incursa en ninguna de las circunstancias que establece el artículo 12 de la Norma Foral 5/2005, ni sujetas a una orden de recuperación pendiente tras una decisión previa de la Comisión de la Unión Europea que haya declarado una ayuda ilegal e incompatible con el mercado común, así como las empresas en crisis, de acuerdo con la definición de las directrices sobre ayudas estatales de salvamento y de reestructuración de empresas no financieras en crisis (DO C249, 31 de julio de 2014).

iii. Que la entidad cumple todos los otros aspectos contemplados en la Norma Foral 5/2005 para ser beneficiaria.

Si la persona solicitante falseara cualquiera de los datos incluidos en la declaración responsable anteriormente mencionada, se verá sometida al régimen sancionador, tanto administrativo como penal, vigente.

2.2. Documentación adicional:

a) Condición de operador: se deberá aportar la acreditación de que la solicitante reúne la condición de operador debidamente habilitado, esto es, acreditación de estar inscrito en el Registro de Operadores regulado en el artículo 7 de la Ley 11/2022, de 28 de junio, General de Telecomunicaciones.

b) Memoria, incluyendo:

i. Descripción general del proyecto (máximo 2 páginas) como resumen ejecutivo del proyecto.

ii. Descripción técnica del proyecto, incluyendo:

- La solución tecnológica elegida, la descripción y topología de la red de acceso objeto del proyecto y la ubicación de la central o cabecera de la red de acceso contemplada, aunque no se incluyan inversiones en la misma. A tal efecto se incluirán diagramas de bloques debidamente explicados que faciliten su comprensión, así como la motivación de su adecuación a la zona y de su sostenibilidad a medio-largo plazo.
- La identificación, cuantificación y dimensionamiento de las unidades de obra de adaptación o de creación de red, tanto de infraestructuras pasivas y obra civil, como de equipamiento activo en relación con la demanda de cobertura estimada y las





balioetsitako estaldura-eskariari eta handizkarien sarbide-betebeharrei dagokionez. Horretarako, kokapen geografikoa zehazteko behar den informazio kartografikoa jasoko da.

- Teknologia erradioelektrikoa lizentziadun bandetan erabiltzen bada, eskatzailea lizentzia egokien titularra den adieraziko da, edo, bestela, espektroaren erabilera lagatzeko akordioak dituen. Azken kasu horretan, akordio horien kopia aurkeztuko da, edo akordiook agertzen diren Telekomunikazioen eta Azpiegitura Digitalen Estatu Idazkaritzaren espedienteak identifikatuko dira.
- Aukeratutako irtenbidearen iraunkortasunari buruzko balioespena, eskariaren aldaketa aurreikusgarrietara egokitzeko duen eskalagarritasunean oinarrituta.
- Hedapen-plana, honako informazio hau jasota: egin beharreko jardueren eta faseen deskribapena eta zedarritzapena, hala nola: baimenak eta lizentziak lortzea, obra zibila gauzatzea, materialak eskuratzea eta instalatzea (fase eta jardura bakoitzaren zedarritzapenak kontuan hartuko du lotutako obra-unitateen eta beharrezko beste baliabide batzuen kuantifikazioa); proiektatutako sarea martxan jarri arteko faseen eta jardura nagusien hasierari eta amaierari buruzko aurreikuspenen kronograma. Gainera, proiektua gauzatzeko aurreikusitako antolamendua deskribatuko da, eta, horretarako, bertako langileek

obligaciones de acceso mayorista. A tal efecto se incluirá la información cartográfica necesaria para precisar su ubicación geográfica.

- En el caso de utilizar tecnología radioeléctrica en bandas licenciadas, se indicará si el solicitante es titular de las correspondientes licencias, o en su defecto, si dispone de acuerdos de cesión de uso del espectro. En este último caso se facilitará copia de tales acuerdos o se identificarán los expedientes de la Secretaría de Estado de Telecomunicaciones e Infraestructuras Digitales en los que figuren.
- Valoración de la sostenibilidad de la solución elegida en base a su escalabilidad para adaptarse a las previsibles variaciones de la demanda.
- Plan de despliegue, incluyendo la siguiente información: descripción y delimitación de las fases y principales actividades a realizar, tales como: obtención de permisos y licencias, realización de obra civil, adquisición de materiales y su instalación² (la delimitación de cada fase y actividad incluirá la cuantificación de las unidades de obra asociadas y de otros recursos necesarios); Cronograma de previsiones sobre el inicio y finalización de las fases y principales actividades hasta la puesta en funcionamiento de la red proyectada. Además se describirá la organización prevista para la ejecución del proyecto, para ello se incluirá una descripción del equipo

² Ondasun eta zerbitzuen hornikuntzari dagokionez, hornitzaileak hautatzeko tresnak azalduko dira, oinarri arautzaile hauen 6. artikulua xedatutakoa kontuan hartuta. Bertan ezartzen denez, gutxienez hornitzaile desberdinen hiru eskaintza aztertu beharko dira, diruz lagundu daitekeen gastuaren zenbatekoa 40.000 eurotik gorakoa denean, lanei doakionez, eta 15.000 eurotik gorakoa denean, beste kontratu batzuei doakionez. Gainera, proposamen ekonomiko onuragarriena ez bada hautatzen, berariazko justifikazioa aurkeztu beharko da. Ondasun- edo zerbitzu-hornitzailearen bat hautatzeko prozesua proiektu honetarako berariaz egiten ez bada, operadorearen prozedura orokor baten atal delako, prozedura horren deskribapena aurkeztu beharko da.

² En relación con los aprovisionamientos de bienes y servicios, se expondrán los mecanismos de selección de proveedores, teniendo en cuenta lo previsto en el artículo 6 de estas bases reguladoras, en donde se establece que se deberán tener en cuenta tres ofertas, como mínimo, de diferentes proveedores, cuando el importe del gasto subvencionable supere las cuantías de 40.000 euros en caso de obras y de 15.000 euros en caso de otros contratos, debiendo incorporar una justificación expresa cuando la elección no recaiga en la propuesta económica más ventajosa. Si el proceso de selección de algún proveedor de bienes o servicios no se realizara específicamente para este proyecto, por formar parte de un procedimiento general del operador, se deberá aportar una descripción de dicho procedimiento.





osatutako lantaldearen deskribapena jasoko da, hala badagokio, lantaldeko kideen kopurua eta profil profesionalak eta funtzioak ere aintzat hartuta.

- Azpiegituren berrerabilera. Proiektua definitu aurretik beste azpiegitura batzuk berrerabiltzeari buruz egin den azterketaren irismena eta ondorio nagusiak azalduko dira, bai eta proiektuan azkenean baliatuko den aprobetxamendu-maila ere. Enpresa eskatzaileek erabili nahi dituzten azpiegituren eta horien gainean egin beharreko jarduketaren xehetasunak aurkeztea komeni da, alderdi hori behar bezala balioetsi ahal izateko.

iii. Eragin soziala eta ekonomikoa. Azterketa bat egingo da, eta proiektuaren garapenak ekarriko bide dituen eragin sozioekonomiko guztiak, proiektuaren helburua osatzen duen estaldura handitzekoak ez direnak, deskribatu eta kuantifikatuko dira, bereziki, honako hauei buruzkoak:

- Jarduera-eremuen garapen ekonomikoa.
- Jarduketa honen helburu ez diren beste unitate batzuetan banda ultralasterreko sarearen beste hedapen batzuk errazteko proiektuaren inpaktua.
 - Beste eragin sozioekonomiko batzuk.

iv. Bideragarritasun ekonomikoa eta finantzarioaren azterketa. Horretarako, honako hauek jorratuko dira:

- Merkataritza-estrategia, aurreikusitako merkaturatze-jarduerak eta zerbitzuak emateko planak: egungo eta aurreikusitako merkataritza-ingurunearen azterketa. Bertan, eskariaren, lehia-baldintzen eta merkatuko beste edozein ezaugarri aipagarriren balioespena jasoko da, bai eta proiektuak eremuko erabiltzaileentzat operadorea eta zerbitzuak aukeratzeko gaitasunari lotuta izango duen eraginaren balorazioa ere. Era berean, merkaturatzea begiz jotzen diren sareko zerbitzu-mota

de trabajo formado por personal propio, en su caso, que incluya: número y perfiles profesionales de los miembros del equipo de trabajo y sus funciones.

- Aprovechamiento de infraestructuras. Se facilitará el alcance y las principales conclusiones del análisis de reutilización de otras infraestructuras que, en su caso, se haya realizado con carácter previo a la definición del proyecto, así como el grado de aprovechamiento finalmente incluido en el mismo. Se espera que las empresas solicitantes presenten un detalle de las infraestructuras existentes que proponen utilizar y las actuaciones que prevén necesarias realizar sobre las mismas, de modo que permitan una correcta valoración de este aspecto.

iii. Impacto social y económico. Se realizará un análisis y se describirán y cuantificarán todos los impactos socio-económicos que se esperan con el desarrollo del proyecto, distintos de los de ampliación de la cobertura que constituye el objetivo del mismo y, en particular, los relativos a:

- El desarrollo económico de las zonas de actuación
- Impacto del proyecto en facilitar otros despliegues de red de banda ultrarrápida en otras unidades no objetivo de esta actuación
- Otros impactos socioeconómicos

iv. Análisis de la viabilidad económica y financiera, para lo que se incluirá:

- Estrategia comercial, actividades de comercialización previstas y planes de prestación de servicios: análisis del entorno comercial actual y previsto, en el que se incluirá una estimación de la demanda, de las condiciones de competencia y de cualquier otra característica destacable del mercado, así como una valoración del efecto que la realización del proyecto tendrá sobre la capacidad de elección de operador y de servicios, para los usuarios de la zona. Asimismo, se indicarán los principales tipos





nagusiak, prezioen bitartea, banaketa/salmenta kanala, sustapenak, publizitatea eta beste edozein alderdi garrantzitsu adieraziko dira (era bertikalean integratutako operadoreak direnean, eta aurreko informazioak ez dagoenean, laguntza eskatzen deneko sarearen bidez ematea aurreikusten diren komunikazio elektronikoen zerbitzuei dagokiena emango da).

- Proiektuaren galdu-irabazien kontuaren aurreikuspena: Galdu-irabazien kontua aurkeztu beharko da, laguntzaren xede den proiektuari soilik dagokiona. Era bertikalean integratutako operadoreen kasuan, laguntza eskatzen deneko sarearen bidez komunikazio elektronikoen zerbitzu-ematea jaso ahal izango da kontu horretan. Gastuen atalean, kontzeptu guztiak jasoko dira, laguntza jaso dezaketen ala ez alde batera utzita. Denbora-muga, gutxienez, laguntza jasoko litzatekeen urtetik sarea amortizatu arteko aldia izan beharko da. Eskariaren aurreikuspenari buruzko sentikortasun-analisia ere egingo da, non jasoko baitira hainbat egoera eta halakoak gertatzeko probabilitatea.
- Eskaeraren beharraren justifikazioa. Laguntzaren beharra arrazoitzeko, proiektuaren epe luzeko emaitzen sentikortasun-analisia egingo da, aldagai nagusien bilakaerari buruzko aurreikuspenen arabera, hainbat egoera eta haietako bakoitza gertatzeko probabilitatea kontuan hartuta. Premia hori merkataritza-defizitean edo epe luzerako errentagarritasun txikian islatu beharko da, une honetan proiektua gauzatzea eragotziko duena, eta aukera-kostuen, barne-itzulera-tasaren, egungo balio garbiaren eta inbertsioa berreskuratzeko epearen arabera adieraziko da.

-

v. Balizko arriskuen identifikazioa eta kontingentzia-plana: kontingentzia-planak proiektuaren garapen normala ahalbidetzen duen prozedura-multzoa izango du, estaldura-helburuak

de servicios de red que se prevén comercializar, el nivel de precios, el canal de distribución/ventas, las promociones, la publicidad y cualquier otro aspecto relevante (cuando se trate de operadores integrados verticalmente, y no se disponga de la información anterior, se facilitará la correspondiente a los servicios de comunicaciones electrónicas que se prevé prestar a través de la red para la que se solicita la ayuda).

- Previsión de cuenta de pérdidas y ganancias del proyecto: Se deberá facilitar una cuenta de pérdidas y ganancias referida exclusivamente al proyecto para el que se solicita ayuda. Cuando se trate de operadores integrados verticalmente, se podrá incluir en dicha cuenta la prestación de servicios de comunicaciones electrónicas a través de la red para la que se solicita la ayuda. En la parte de gastos se incluirán todos los conceptos, independientemente de si son o no susceptibles de ayuda. El horizonte temporal deberá incluir, como mínimo, el periodo que va desde el año en el que se recibirá la ayuda, hasta la amortización de la red. Se realizará un análisis de sensibilidad con respecto a las estimaciones de demanda que contemple varios escenarios junto con la probabilidad de su ocurrencia.
- Justificación de la necesidad de la ayuda: Se motivará la necesidad de la ayuda a través del análisis de sensibilidad de los resultados del proyecto a largo plazo, en función de previsiones sobre la evolución de las principales variables, contemplando varios escenarios y la probabilidad de que cada uno de ellos ocurra. Dicha necesidad deberá reflejarse en la existencia de un déficit comercial o baja rentabilidad a largo plazo que impida la ejecución del proyecto en este momento y será expresada en base a los costes de oportunidad, tasa interna de retorno, valor actual neto y plazo de recuperación de la inversión.

v. Identificación de posibles riesgos y plan de contingencias: El Plan de Contingencia contendrá un conjunto de procedimientos que permita mantener el desarrollo normal del proyecto





aurreikusi diren gauzatze-epeetan betetzen direla ziurtatuz. Proiektuak izan ditzakeen arriskuen analisia egingo da, eta proiektuaren eremu bakoitzeko mehatxuak eta ahuleziak detektatuko dira. Era berean, kontingentzia-planak aurreikusitako neurri tekniko eta antolamenduzko guztiak jasoko ditu, bai identifikatutako arriskuen eragina prebenitzeko, bai arintzeko, estaldura-helburuak aurreikusitako gauzatze-epeetan betetzean.

Egin beharreko hedapena foru-titulartasuneko errepidea babesteko eremuan egin behar bada, eta hori gauzatzeko errepideen arloan eskumena duen foru-sailaren nahitaezko baimena beharko denez, aurkeztutako proiektuek Bizkaiko errepideei buruzko urriaren 20ko 5/2021 Foru Arauak eta hura garatzeko 5/2005 Foru Arauak ezarritako aginduak bete beharko dituzte.

vi. Diruz lagunduko diren gastuen aurrekontu zehatza. Aurrekontu xehatua aurkeztuko da, diruz lagundu daitezkeen kontzeptuen arabera banakatuta, dokumentu honen 6. artikulua arabera. Kontzeptu bakoitzaren barruan partida edo sail guztiak jasoko dira (izena, deskribapena, neurri-unitatea, unitateko kostua, unitatekopuruaren aurreikuspena eta zenbatekoa). Aurrekontu honetan, proiektuaren izaera edo gastuak egiteko epea direla-eta diruz laguntzeko modukoak diren gastuak bakarrik jaso beharko dira. Gastuak egiteko epea laguntza eman dela jakinarazten den egunean hasi eta proiektua bukatzeko aurreikusitako azken egunean amaitzen da; nolana ere, laguntza eman dela jakinarazten denetik 24 hilabete igaro baino lehen.

3. Nolanahi ere, organo instrukzio-egileak eskabideak behar bezala ulertzeko eta ebaluatzeko behar duen dokumentazio eta/edo informazio osagarri guztia eska diezaieke entitate eskatzaileei. Foru-dekretu honetan jasota ez dagoenerako eta prozedurari dagokionez, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legean ezarritakoa aplikatuko da.

4.-Indarrean dauden eta Bizkaiko Foru Aldundiaren esku dauden agiriak ez dira nahitaez aurkeztu beharko. Kasu horretan, eskabidean adieraziko da noiz eta zer organo edo bulegotan aurkeztu ziren, Administrazio Publikoen

asegurando el cumplimiento de los objetivos de cobertura en los plazos de ejecución previstos. Se realizará un análisis de los posibles riesgos a los que se enfrenta el proyecto, detectando para cada ámbito del proyecto las amenazas y vulnerabilidades. Así mismo, el plan de contingencia incluirá el conjunto de medidas técnicas y organizativas previstas tanto para prevenir y como para mitigar el impacto de los riesgos identificados en el cumplimiento de los objetivos de cobertura en los plazos de ejecución previstos.

En los supuestos en los que el despliegue a realizar se ubique en zona de protección de carretera de titularidad foral, dado que para su ejecución será preciso contar con la preceptiva autorización del Departamento Foral competente en materia de carreteras, los proyectos presentados deberán cumplir las prescripciones establecidas en Norma Foral 5/2021, de 20 de octubre, de carreteras de Bizkaia y su normativa de desarrollo 5/2005.

vi. Presupuesto detallado de los gastos e inversiones necesarias: Se facilitará el presupuesto detallado, por conceptos subvencionables según el artículo 6 de este documento. Dentro de cada concepto se incluirán las diferentes partidas (denominación, descripción, unidad de medida, coste unitario, previsión del número de unidades e importe). Sólo se deberán reflejar en este presupuesto aquellos gastos que sean elegibles, tanto por su naturaleza, como por el plazo de realización, que va desde la fecha de concesión de la ayuda hasta la fecha final prevista para la ejecución del proyecto, con límite en los 24 meses desde la fecha de notificación de la concesión de la ayuda.

3. En cualquier caso, se podrá requerir a la empresa solicitante cuanta documentación y/o información complementaria se considere necesaria para la adecuada comprensión, evaluación y tramitación de la solicitud presentada, señalándose que, en lo no expresamente previsto en las presentes bases, resultará de aplicación lo dispuesto en la Ley 39/2015, de 1 de octubre, de Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas.

4.-No será preceptiva la presentación de aquellos documentos vigentes que ya se encuentren en poder de la Diputación Foral de Bizkaia. En este supuesto, se hará constar en la solicitud, la fecha y órgano o dependencia en





Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak ezarritako moduan eta baldintzetan.

5-Dirulaguntzaren eskabidea aurkeztean, eskatzaileak berariazko baimena emango dio laguntza horien kudeatzaileari zuzenean egiazta ditzan entitate onuradunaren izaera zehazteko inguruabarrak. Horretarako, ziurtagiri telematiko egokiak aurkeztu ahal izango ditu, Dirulaguntzen Erregelamenduaren 17.1 artikulua eta Datu Pertsonalak Babesteari eta Eskubide Digitalak Bermatzeari buruzko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoak ezarritakoarekin bat etorritz.

13. artikulua.— Entitate laguntzaileak

1.-Azpiegituretarako eta Lurralde Garapenerako Sailak foru-sozietate publikoen laguntza du bere helburuak lortzeko. Sozietate horien artean, Azpiegiturak SABP sozietatea dugu, eta laguntza-programan parte hartuko du entitate laguntzaile gisa.

2.-Azpiegiturak SABP sozietateak Bizkaiko Foru Aldundiko Azpiegituretarako eta Lurralde Garapenerako Sailaren izenean eta haren kontura jardungo du, sail horrek ematen baititu, ondorio guztietarako, dekretu honetan zehazten diren laguntzak.

3.-Honako oinarri hauetan araututako dirulaguntzak kudeatzeko entitate laguntzaileak bete egin beharko ditu 5/2005 Foru Arauak eta hura garatzeko arauak horretarako ezartzen dituzten betebeharrak eta erantzukizunak.

14. artikulua. — Dirulaguntzaren ordainketa eta proiektuaren justifikazioa.

1.-Dirulaguntza Azpiegiturak SABPren bitartez ordainduko da. Sozietate horrek adjudikazioan emandako zenbatekoaren % 100 jasoko du.

Azpiegiturak SABPk ordainketa-plan honen arabera egingo ditu ordainketak:

- a) Lehen ordainketa aurrerakin gisa egin ahal izango da deialdia ebatzi ondoren. Horretarako, aplikatu beharreko bermeen araubidea bete beharko

que se presentaron, en los términos y con los requisitos establecidos en la Ley 39/2015, de 1 de octubre, de Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas.

5.-La presentación de la solicitud de subvención conllevará la autorización del solicitante para que el gestor de estas ayudas obtenga de forma directa la acreditación de las circunstancias para determinar la condición de entidad beneficiaria, lo que podrá realizarse a través de los correspondientes certificados telemáticos, en los términos establecidos en el artículo 17.1 del Reglamento de subvenciones y en la Ley Orgánica 3/2018, de 5 de diciembre, de Protección de Datos Personales y Garantía de los Derechos Digitales.

Artículo 13. Entidades colaboradoras.

1.-El Departamento de Infraestructuras y Desarrollo Territorial cuenta para la consecución de sus objetivos con la asistencia de sociedades públicas forales. Entre dichas sociedades se encuentra Azpiegiturak S.A.M.P., la cual intervendrá dentro del programa de ayudas como entidad colaboradora.

2.-Azpiegiturak, S.A.M.P. actuará en nombre y por cuenta del Departamento de Infraestructuras y Desarrollo Territorial de la Diputación Foral de Bizkaia, que es quien concede a todos los efectos las ayudas establecidas en el presente Decreto Foral.

3.-La entidad colaboradora en la gestión de las subvenciones reguladas en estas Bases queda sujeta a las obligaciones, y responsabilidades, que, para la misma, previene la Norma Foral 5/2005, y sus normas de desarrollo.

Artículo 14. Pago de la subvención y justificación del proyecto.

1.-El abono se realizará a través de Azpiegiturak, S.A.M.P. quien recibirá el 100% del importe concedido en el momento de la adjudicación.

Azpiegiturak, S.A.M.P. realizará los pagos de acuerdo al siguiente plan de abonos:

- a) El primer abono podrá ordenarse como anticipo una vez resuelta la convocatoria cumpliendo con el régimen de garantías que le sea de aplicación. El importe a abonar corresponderá al 10 por ciento,





da. Gehienez ere 2024ko urtekoari dagokion kopuruaren % 10 ordainduko da.

b) Aurrerakina eman ahal izateko, berme bat eratu beharko da –aurrerakinaren zenbatekoa gehi ehuneko hamar–, aurreratutako kopuruei eta berandutza-interesei erantzuteko. Bermea Bizkaiko Foru Aldundiaren alde eratuko da, Bizkaiko Foru Aldundiaren abenduaren 16ko 169/2014 Foru Dekretuan ezarritako modalitate eta betekizunetan (dekretu horren bidez, Bizkaiko Lurralde Historikoko Aurrekontuen Erregelamendu Orokorra onartu zen, Aurrekontuen Foru Arau Orokorraren Testu Bategina garatzeko), eta ordainketa egin aurretik aurkeztu beharko da haren egiaztagiria. Gai honetan, 5/2005 Foru Araua garatzen duen Dirulaguntzen Erregelamendua onesten duen martxoaren 23ko 34/2010 Foru Dekretuaren 30. artikuluan eta hurrengoetan ezarritako araubidea aplikatuko da.

c) Bigarren ordainketa 2025eko ekitaldia amaitu baino lehen egin ahal izango da, betiere egindako inbertsioak justifikatzen badira. Inbertsio horien zenbatekoa ordaindutako aurrerakinaren zenbatekoaren bestekoa izan behar da gutxienez.

d) Hirugarren ordainketa 2026ko ekitaldian agindu ahal izango da, betiere egindako inbertsioak justifikatzen badira. Inbertsio horien zenbatekoa aurretiaz egindako ordainketen zenbatekoaren bestekoa izan behar da gutxienez.

e) Laugarren eta azken ordainketa ezin izango da baimendu eskatutako frogagiri guztiak aurkeztu arte, eta ezinbestekoa izango da emandako dirulaguntzaren zenbatekoarekin egindako inbertsioak justifikatzea.

2. Ekitaldi bakoitzean ordainketak egiteko eskatzen diren likidazio-eskaerekin batera, honako agiri hauek aurkeztu beharko dira:

a) Proiektuaren exekuzioari buruzko memoria zehatza.

b) Fakturak edo merkataritza-trafiko juridikoan froga-balio bera duten dokumentuak edo administrazioan eraginkorrak direnak, diruz lagundu daitezkeen gastuak eta inbertsioak egiaztatzeko.

c) Finantza-erakundearen ordainagiriak.

como máximo, de la concesión atribuida a la anualidad del 2024.

b) El anticipo estará supeditado a la constitución de garantía por el importe del anticipo más un diez por ciento y responderá de las cantidades anticipadas y de los intereses de demora. Se constituirán a disposición de la Diputación Foral de Bizkaia, en las modalidades y requisitos establecidos en el Decreto Foral de la Diputación Foral de Bizkaia 169/2014, de 16 de diciembre, por el que se aprueba el Reglamento General Presupuestario del Territorio Histórico de Bizkaia, de desarrollo del Texto Refundido de la Norma Foral General Presupuestaria, y deberán aportar justificante de la misma previo al abono. En esta materia se aplicará el régimen previsto en los artículos 30 y siguientes del Decreto Foral 34/2010, de 23 de marzo, por el que se aprueba el Reglamento de Subvenciones, de desarrollo de la Norma Foral 5/2005.

c) El segundo pago podrá ordenarse antes de finalizar el ejercicio 2025, y siempre que se justifiquen las inversiones realizadas por un importe equivalente, como mínimo, al anticipo abonado.

d) El tercer abono podrá ordenarse en el ejercicio 2026, y siempre que se justifiquen las inversiones realizadas por un importe equivalente, como mínimo, a los abonos realizados anteriormente.

e) El cuarto y último abono no podrá autorizarse hasta la oportuna presentación de la documentación justificativa exigida, y siempre que se justifiquen las inversiones por el importe de la ayuda concedida.

2 Las solicitudes de liquidación requeridas para los pagos en cada ejercicio deberán acompañarse de la siguiente documentación:

a) Memoria detallada de la ejecución del proyecto.

b) Facturas o documentos de valor probatorio equivalente en el tráfico jurídico mercantil o con eficacia administrativa de los gastos e inversiones elegibles.

c) Justificantes de pago de la entidad financiera.





d) Finantza-erakundearen ziurtagiria, kontu korrontearen titularitasuna onuradunaren izenean dagoela eta kontuaren zenbakia egiaztatzen duena.

e) Hala badagokio, proiektua gauzatzeko behar diren baimenak lortu izanaren frogagiria.

f) Ordainketa bakoitza egiaztatzeko, onuradunak Azpiegiturak SABPri eskatu beharko dio proiektuaren gauzatze-egoera egiazta dezala, aurkeztutako fakturen eta proiektatutako egikaritze-egutegiaren arabera. Azpiegiturak SABPk obren bilakaerari buruzko aldeko iritzia ematen duen txostena egingo du, ordainketa justifikatzeko.

3. Emandako dirulaguntza ordaindu aurretik, onuradunak diruz lagundutako proiektua osorik gauzatu dela justifikatu beharko du proiektua amaitu eta 90 egun naturaleko epearen barruan.

4. Proiektua guztiz egin dela justifikatzeko, martxoaren 23ko 34/2010 Foru Dekretuaren 59. artikuluan ezarritako modalitatea erabiliko da, hau da, onuradunak justifikazio-kontu bat aurkeztu beharko du, kontu-auditore baten txostenarekin batera. Kontu-auditore horrek jarduneko auditore gisa egon behar du inskribatuta Kontabilitate eta Kontuen Ikuskaritza Institutuaren menpeko Kontuen Auditoreen Erregistro Ofizialean.

Auditoreak berrikusi beharreko justifikazio-kontuan dokumentu hauek agertu behar dira:

a) Dirulaguntza ematerakoan ezarritako baldintzak bete direla justifikatzen duen jardueratxostena, non egindako ekintzak eta lorturiko emaitzak adierazten diren, jarduketa-eremu bakoitzean jasotako potentziaren eta igoera- eta jaitsiera-abiaduraren batez besteko balioak barne. Telekomunikazioen arloko teknikari eskudun batek egindako ziurtagiri baten bidez abalatu beharko dira datu horiek.

b) Egindako jardueren kostua frogatzen duen txosten ekonomikoa, honako hauek jasotzen dituen:

i. Jardueraren gastuen eta inbertsioen zerrenda sailkatua, hartzekoduna, dokumentua, zenbatekoa, jaulkipen-data eta, hala badagokio, ordainketa-data identifikatuta. Dirulaguntza hori aurrekontu baten arabera eman bada, aurrekontuan izandako desbideratzeak zehaztu behar dira.

d) Certificado de la entidad financiera que acredite la titularidad y número de la cuenta corriente a nombre de la persona beneficiaria.

e) La justificación, en su caso, de la obtención de las autorizaciones precisas para la ejecución del proyecto.

f) Para verificar cada uno de los pagos la persona beneficiaria deberá requerir a Azpiegiturak S.A.M.P para que verifique el estado de ejecución del proyecto conforme a las facturas presentadas y el calendario de ejecución proyectado. Azpiegiturak S.A.M.P emitirá un informe con su opinión favorable acerca de la evolución de las obras que justifiquen el pago que se requiera.

3. La beneficiaria deberá justificar la ejecución global del proyecto subvencionado en el plazo de 90 días naturales desde la finalización del mismo, previo al abono de la subvención concedida.

4. La forma de justificación de la ejecución final del proyecto, será la de la modalidad establecida en el artículo 59 del Decreto Foral 34/2010, de 23 de marzo, por lo que la beneficiaria deberá presentar una cuenta justificativa acompañada de un informe de una persona auditora de cuentas inscrita como ejerciente en el Registro Oficial de Auditores de Cuentas dependiente del Instituto de Contabilidad y Auditoría.

La cuenta justificativa objeto de revisión por parte de la persona auditora de cuentas contendrá la siguiente documentación:

a) Una memoria de actuación justificativa del cumplimiento de las condiciones impuestas en la concesión de la subvención, con indicación de las actividades realizadas y de los resultados obtenidos, incluyendo los valores medios de potencia recibida y de velocidad de bajada y subida en cada una de las zonas de actuación, avalados con un certificado expedido por un técnico competente en materia de telecomunicaciones.

b) Una memoria económica justificativa del coste de las actividades realizadas, que contendrá:

i. Una relación clasificada de los gastos e inversiones de la actividad, con identificación del acreedor y del documento, su importe, fecha de emisión y, en su caso, fecha de pago. En caso de que la subvención se otorgue con arreglo a un presupuesto, se indicarán las desviaciones acaecidas.





ii. Aurreko paragrafoan aipatutako zerrendan jasotzen diren fakturak edo merkataritzako trafiko juridikoan froga-balio bera duten edo eraginkortasun administratiboa duten agiriak eta, hala badagokio, finantza-erakundearen ordainketa egiaztatzeko agiriak.

iii. Finantza-erakundearen ziurtagiria, kontu korrontearen titulartasuna onuradunaren izenean dagoela eta kontuaren zenbakia egiaztatzen duena.

iv. Adieraziko da, hala badagokio, zer irizpideren arabera banatu diren a) letran aipatutako zerrendan sartutako kostu orokorrak eta/edo zeharkako kostuak, salbu eta dirulaguntza arautzen duten oinarrietan aurreikusi bada kostuok oroharreko prezioan konpentsatzea justifikazio beharrik gabe.

v. 5/2005 Foru Arauaren 29.3 artikulua betetzeko, azpikontatzaiziorik eginez gero, entitate onuradunak eskatu behar izan dituen hiru aurrekontuak.

vi. Hala badagokio, itzulketaren ordainketa-gutuna, aplikatu gabeko soberakinik badago, bai eta haien ondoriozko interesena ere.

Auditoreak egin beharreko txostenaren nondik norakoak eta edukia Ogasun eta Finantza Saileko foru-diputatuaren apirilaren 15eko 945/2011 Foru Aginduen 3. eta 7. artikuluetan ezarritakoa izango da. Agindu horren bidez, foru-sektore publikoko dirulaguntzen justifikazio-kontuak berrikusteko lanak egiteko kontu-auditoreen jardun-arauak onartu ziren; lan horiek maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauaren Erregelamenduen 59. artikuluan daude aurrez ikusita (martxoaren 23ko 34/2010 Foru Dekretuak onartu zuen erregelamendu hori).

5. Gainera, laguntzak ordaindu aurretik, entitate onuradunak Azpiegituretarako eta Lurralde Garapenerako Sailaren eta Azpiegituretarako SABPren esku jarriko du oinarri arautzaile hauen 12. artikuluan aipatzen den erantzukizunpeko adierazpenean agertzen diren datuak egiaztatzeko behar den dokumentazio guztia.

6. Azpiegituretarako eta Lurralde Garapenerako Sailaren izenean, Azpiegituretarako SABP sozietateak beharrezkotzat jotzen duen dokumentazio eta informazio osagarri guztia eskatu ahal izango du, entitate onuradunak aurkeztutako datuak egiazkoak

ii. Las facturas o documentos de valor probatorio equivalente en el tráfico jurídico mercantil o con eficacia administrativa incorporados en la relación a que se hace referencia en el párrafo anterior y, la documentación acreditativa del pago de la entidad financiera.

iii. Certificado de la entidad financiera que acredite la titularidad y número de la cuenta corriente a nombre de la entidad beneficiaria.

iv. Indicación, en su caso, de los criterios de reparto de los costes generales y/o indirectos incorporados en la relación a que se hace referencia en el apartado a), excepto en aquellos casos en que las bases reguladoras de la subvención hayan previsto su compensación mediante un tanto alzado sin necesidad de justificación.

v. Los tres presupuestos que, en aplicación del artículo 29.3 de la Norma Foral 5/2005, en caso de subcontrataciones deba de haber solicitado la entidad beneficiaria.

vi. En su caso, la carta de pago de reintegro en el supuesto de remanentes no aplicados así como de los intereses derivados de los mismos.

El alcance y contenido del informe a emitir por la persona auditora será el establecido en los artículos 3 y 7 de la Orden Foral 945/2011, de 15 de abril, del Diputado Foral del Departamento de Hacienda y Finanzas, por la que se aprueban las normas de actuación de las personas auditoras de cuentas en la realización de los trabajos de revisión de cuentas justificativas de subvenciones, en el ámbito del sector público foral, previstos en el artículo 59 del Reglamento de la Norma Foral 5/2005, de 31 de mayo, de Subvenciones, aprobado mediante Decreto Foral 34/2010, de 23 de marzo.

5. La entidad beneficiaria pondrá, además, a disposición del Departamento de Infraestructuras y Desarrollo Territorial, y de Azpiegituretarako, S.A.M.P., como Entidad Colaboradora, antes del abono de las ayudas, toda aquella documentación que fuera precisa para la comprobación de los datos que aparecen en la declaración responsable a la que alude el artículo 12 de estas bases reguladoras.

6. La Sociedad Azpiegituretarako, S.A.M.P., actuando en nombre del Departamento de Infraestructuras y Desarrollo Territorial, requerirá cuanta documentación e información complementaria consideren necesaria en orden a la comprobación de la veracidad de los datos





direla egiaztatzeko. Halaber, diruz lagundutako jarduera osorik egin dela egiaztatzen duen dokumentazioa aurkezteko eskatu ahal izango du.

7. Likidazio-eskaerak modu partzialean aurkeztu ahal izango dira gauzatutako hedapen-proiektuen multzo jakin baterako, betiere araudi honetan ezarritako alderdi guztiak betetzen badira.

8. Laguntzaren gainerako zenbatekoa ordaindu aurretik, aurreko paragrafoan adierazitako alderdiak egiaztatuta, Lurralde Garapenerako zuzendari nagusiak ebazpena emango du, non zehaztuko baita enpresa onuradunari ordaindu beharreko zenbateko osoa edo partziala. Ordainketa horien zenbatekoa justifikatutako inbertsioekiko proportzionala izango da. Ezin izango da dirulaguntzaren ordainketarik egin onuradunak zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean ez baditu, edo itzultzeko ebazpen baten ondorioz zorduna bada.

presentados por la entidad beneficiaria, así como la presentación de la documentación justificativa de la realización del total de la actividad subvencionada.

7. Las solicitudes de liquidación podrán presentarse de manera parcial para un conjunto determinado de proyectos de despliegue completados, siempre que cumplan todos los aspectos establecidos en la presente normativa.

8. Con carácter previo al desembolso de la ayuda restante, verificados los aspectos señalados en el párrafo anterior, el Director General de Desarrollo Territorial dictará resolución en la que se indicará el importe, total o parcial, que corresponda satisfacer a la empresa beneficiaria, siendo el importe de dichos pagos proporcional a las inversiones justificadas. No podrán realizarse pagos de la subvención si la entidad beneficiaria no se halla al corriente en el cumplimiento de sus obligaciones tributarias y frente a la Seguridad Social, o sea deudor por resolución de procedencia de reintegro.

II. TITULUA

TÍTULO II

Dirulaguntza guztietarako xedapenak

Disposiciones comunes a las subvenciones

15. artikulua. —Diruz lagundu daitezkeen gastutzat jotzeko irizpide orokorrak

Artículo 15. Criterios generales para la consideración de gastos subvencionables.

1. Diruz lagundu daitezkeen gastutzat joko dira proiektu edo jardueraren izaerari eta garapen normalari erantzuten dioten eta epearen barruan egin diren beharrezko gastuak, betiere indarreko arautegiaren arabera behar bezala justifikatu badira.

1. Se considerarán gastos subvencionables, aquellos que, siendo correctamente justificados de conformidad con la normativa en vigor, se hayan ejecutado en plazo, sean necesarios y respondan a la naturaleza y al normal desarrollo del proyecto o actividad.

2. Ez da onartuko diruz lagundu daitezkeen gastuen eskuratze-kosturik baldin eta merkatuko balioa baino handiagoa bada.

2. No se admitirán costes de adquisición de gastos subvencionables que sean superiores al valor del mercado.

3. Edozein kasutan, honako hauek ezin izango dute dirulaguntzarik jaso:

3. En cualquier caso, no serán subvencionables:

i. Dirulaguntzaren xede den jarduerarekin argi eta garbi identifikatu ezin diren gastuak edo/eta deialdi bakoitzean ezarritako epean egiten ez direnak.

i) Los gastos que no puedan identificarse inequívocamente con la actividad objeto de la subvención y/o no se realicen en el plazo establecido en cada convocatoria.

ii. Eskatzailearen eta entitate hornitzailearen artean lotura bat dagoela erakusten duten gastuak.

ii) Los gastos en los que exista vinculación entre solicitante y entidad proveedora. Se entenderá que





Halako lotura dagoela ulertuko da honako artikulua hauek ezartzen dituzten kasuetan: Sozietateen gaineko Zergari buruzko abenduaren 5eko 11/2013 Foru Arauaren 42.3 artikuluan eta Merkataritza Kodearen 42. artikulutik 49.era artekoetan.

existe vinculación en los casos establecidos en el artículo 42.3 de la Norma Foral 11/2013, de 5 de diciembre, del Impuesto Sobre Sociedades, y los artículos 42 a 49 del Código de Comercio.

16. artikulua.—Gastuen doikuntza

Azpiegituretarako eta Lurralde Garapenerako Sailak uste badu gastu-aurrekontua gehiegizkoa dela izaera bereko gastuen batez besteko kostuarekin alderatuta, murriztu egin dezake diruz laguntzeko oinarria, bere ustez doia eta neurrikoa den gastuari dagokion zenbatekoan.

Artículo 16. Ajuste de gastos.

Si el Departamento de Infraestructuras y Desarrollo Territorial considera que el presupuesto de gasto es excesivo en comparación con el coste medio de gastos de análoga naturaleza, podrá reducir la base subvencionable en la cuantía correspondiente a lo que se considera un gasto ajustado y proporcionado.

17. artikulua.—Laguntzen publizitatea.

Dekretu honen babesean emandako laguntzen onuradun diren entitateek jaso duten laguntzaren publizitatea egin beharko dute, hala ezarrita baitago Dirulaguntzei buruzko 5/2005 Foru Arauaren 17.3. artikuluan.

Artículo 17. Publicidad de la ayuda.

Las entidades que resulten beneficiadas por ayudas concedidas al amparo de este Decreto deberán dar publicidad del apoyo recibido, de acuerdo con lo indicado en el artículo 17.3 de la Norma Foral 5/2005.

Proiektuaren finantzazioaren izaera publikoari buruzko publizitate egokia –euskarri informatikoetan zein bestelakoetan– egiteko, esaldi hau sartu beharko da: «Bizkaiko Foru Aldundiak finantzatu du proiektu hau, Bizkaiko Lurralde Historikoko biztanlegune sakabanatuetan banda zabal ultralasterreko sareak hedatzeko 2024ko programaren barruan». Berariaz debekatuta dago Bizkaiko Foru Aldundiari erreferentzia egiten dion beste edozein esaldi edo irudi erabiltzea.

La adecuada publicidad del carácter público de la financiación del proyecto, en soportes tanto informáticos como de cualquier otro tipo, deberá limitarse a la inclusión de la siguiente expresión: «Este proyecto ha sido financiado por la Diputación Foral de Bizkaia dentro del programa de extensión de redes de banda ancha ultrarrápida en zonas diseminadas de población del Territorio Histórico de Bizkaia 2024». Queda expresamente prohibida la utilización de cualquier otra leyenda o imagen mediante la cual se haga referencia a la Diputación Foral de Bizkaia.

Laguntzen entitate onuradunak honako hauei buruzko informazioa argitaratu beharko du bere webgunean: banda zabal ultralasterreko hedapenen kokapena eta zabalera, sarea ustiatzen hasteko data, handizkarien zerbitzuak eta sarbide-baldintzak. Horrela, egiten ari diren obretara eta/edo hedatu diren sareetara sartu nahi duten operadoreek informazio nahikoa dutela bermatzen da.

La entidad beneficiaria de las ayudas deberá publicar, en su página web, información sobre la localización y extensión de los despliegues de banda ancha ultrarrápida, la fecha de inicio de explotación de la red, los servicios mayoristas y condiciones de acceso de forma efectiva para garantizar que aquellos operadores que deseen acceder a las obras en curso y/o redes desplegadas dispongan de información suficiente.

Azkenik, onuradunak euskara erabili beharko du diruz lagundutako jardueraren ondoriozko agerraldi publiko guztietan. Halaber, entitate onuradunek bi hizkuntza ofizialak erabili beharko dituzte herritarrei beren jardueraren berri emateko erabiltzen dituzten liburuxketan, karteletan edo bestelako euskarrietan. Hori guztia 2019ko maiatzaren 28ko 63/2018 Foru

Finalmente, la entidad adjudicataria de la ayuda deberá utilizar el euskera en todas las intervenciones públicas resultantes de la actividad subvencionada. Así mismo, en todos los folletos, carteles o cualquier otro soporte utilizado por la entidad beneficiaria para dar publicidad de su actividad a la ciudadanía deberán utilizarse las dos lenguas oficiales. Todo ello de conformidad con artículo





Dekretuan (hizkuntza ofizialak erabiltzeko irizpideak ezartzen dituen) xedatutakoarekin bat egin beharko da.

13.3 y 13.4 del Decreto Foral 63/2019 de 28 de mayo por el que se establecen los criterios de uso de las lenguas oficiales.

18. artikulua.- Dirulaguntzak argitaratzea

EBazpenaren laburpen bat argitaratuko da Bizkaiko Aldizkari Ofizialean, dirulaguntzak ematen diren egutegiko urte naturala amaitu eta hurrengo hiruhilekoa bukatu aurretik.

Artículo 18. Publicación de las subvenciones

Se publicará un extracto de la resolución en el «Boletín Oficial de Bizkaia» antes del fin del primer trimestre posterior al vencimiento del año natural de concesión.

III. TITULUA

Dirulaguntza emateko prozedura

TÍTULO III

Procedimiento de concesión de las subvenciones

19. artikulua.—Eskabideen aurkezpena

Eskabidea Internet bidez aurkeztu behar da, atal guztiak behar bezala beteta, Azpiegituretarako eta Lurralde Garapenerako Sailaren bulego birtualean <https://apli.bizkaia.net/apps/seguru/lantrebanet/jqd1login.aspx?sdpto=10&lang=eus>

Artículo 19. Presentación de solicitudes.

La solicitud, debidamente cumplimentada en todos sus términos, deberá presentarse por Internet, en la oficina virtual del Departamento de Infraestructuras y Desarrollo Territorial <https://apli.bizkaia.net/apps/seguru/lantrebanet/jqd1login.aspx?sdpto=10&lang=cas>

Aurrekoarekin bat, eskabideak aurkezteko bide telematikoa erabili behar denez, entitate interesdunek, aldeztu aurretik, sinadura elektronikoa izan behar dute (Izenpe, NAN elektronikoa, FEA...) edo B@kQ ziurtagiri elektronikoa. Azpiegituretarako eta Lurralde Garapenerako Sailaren web-orrian aurkitu daiteke alta emateko prozedurari buruzko informazioa.

De acuerdo con lo anterior, la presentación telemática de las solicitudes exigirá que, con carácter previo, las entidades interesadas dispongan de firma electrónica (Izenpe, DNI electrónico, FEA...) o del certificado electrónico B@kQ. La información sobre el procedimiento de alta está disponible en la citada página web del Departamento de Infraestructuras y Desarrollo Territorial.

Eskabidea aurkezteko ezinbestekoa izango da erakundea alta emanda egotea Ekonomi eta Lurralde Garapena Sustatzeko Sailaren eta Enplegua, Gizarte Inklusioa eta Berdintasuna Sustatzeko Sailaren entitate eta pertsona fisikoen erregistroan (ekainaren 14ko 109/2016 Foru Dekretua. 2002ko maiatzaren 24ko Bizkaiko Aldizkari Ofiziala, 116. zenbakia). Alta egoeran badago, erakundeak inskripzio-eskabidea bete beharko du dirulaguntza-eskabidea izapidetu baino lehen.

Para la presentación de la solicitud será requisito que la entidad figure dada de alta en el Registro de entidades y personas físicas del Departamento de Desarrollo Económico y Territorial y del Departamento de Empleo, Inclusión Social e Igualdad. (Decreto Foral 109/2016, de 14 de junio. «Boletín Oficial de Bizkaia» número 116, de 17 de junio de 2016). En caso de no encontrarse en esta situación, la entidad deberá cumplimentar la solicitud de inscripción como paso previo a la tramitación de la solicitud de la subvención.

Dirulaguntzarako eskabidea aurkeztuta, eskatzaileak baimena emango dio instrukzioak arduratzen den organoari inguruabarren egiaztapenak zuzenean eskura ditzan. Horretarako, dagozkion ziurtagiri telematikoak baliatu ahal izango dira, Dirulaguntzei buruzko

La presentación de la solicitud de subvención conllevará la autorización de la solicitante para que el órgano instructor pueda obtener de manera directa la acreditación de las circunstancias para determinar la condición de entidad beneficiaria, lo que podrá realizarse





Erregelamenduaren 17.1 artikuluan eta Datu Pertsonalak Babestekoa eta Eskubide Digitalak Bermatzeko abenduaren 5eko 3/2018 Legean xedatutakoarekin bat etorritz.

Eskabideekin batera, dekretu honen 11. artikuluan adierazitako dokumentazioa aurkeztu behar da, gorago aipatu den bulego birtualean dagoen agiriak eransteko sistema erabilita.

20. artikulua.— Aurkeztutako eskabideak zuzentzea.

Eskabideak ez badira oso-osorik betetzen edo aurreko artikuluan aipatutako dokumentazioa guztia ez badu, errekerimendua egingo zaio entitate, pertsona edo talde eskatzaileari, 10 egun balioduneko epean akatsa zuzendu dezan edo falta diren nahitaezko agiriak aurkez ditzan. Horrez gainera, ohartaraziko zaio ezen, horrela egiten ez badu, eskaeran atzera egin duela ulertuko dela, aurretik ebazpena emanda, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legean xedatutakoarekin bat etorrita.

21. artikulua.— Eskabideak ebaluatzeko organoa eta prozedura

1. Eskabideak aztertu, ebaluatu eta balioetsiko ditu beren-beregi sortutako ebaluazio-organoak; halaber, dirulaguntzak emateko proposamenak egitea organo horri dagokio.

2. Lurralde Garapenerako zuzendari nagusia izango da ebaluazio-organoaren burua. Hauek ebaluazio-organoaren kide izango dira: Lurralde Kohesiorako zuzendariorde nagusia eta Lurralde Garapenerako Zuzendaritza Nagusiko lantalde teknikoko pertsona bat, idazkari-lanak egingo dituen.

3. Azpiegiturak SABP sozietatearen teknikari kualifikatuek egingo dituzte aurkeztutako eskabideak aztertzeko lanak eta ebaluatzeko proposamenak, eta ebaluazio-organoan aurkeztuko dituzte.

4. Bilerak egin, eztabaidak izan eta erabakiak hartu ahal izateko, ebaluazio-organoaren eraketa baliozkoa izango da, baldin eta bertan badaude batzordeburua eta

a través de los correspondientes certificados telemáticos, en los términos establecidos en el artículo 17.1 del Reglamento de Subvenciones, y en la Ley Orgánica 3/2018, de 5 de diciembre, de Protección de Datos de Personal y Garantía de los Derechos Digitales (en adelante Ley Orgánica 3/2018).

Las solicitudes deberán ir acompañadas de la documentación que se determina en el artículo 11; utilizándose el sistema de anexo de documentación existente en la oficina virtual anteriormente citada.

Artículo 20. Subsanación de las solicitudes presentadas.

Si la solicitud no viniera cumplimentada en todos sus términos, o no fuera acompañada de la documentación relacionada en el artículo anterior, se requerirá a la entidad, persona o agrupación solicitante para que, en un plazo de 10 días, subsane la falta o acompañe los documentos preceptivos, con indicación de que, si así no lo hiciera, se le tendrá por desistida de su petición, dictando, a este respecto, la correspondiente resolución, de conformidad con lo dispuesto en la Ley 39/2015, de 1 de octubre, de Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas.

Artículo 21. Órgano y procedimiento de la evaluación de las solicitudes.

1. Corresponderá al Órgano de Evaluación, , creado a estos efectos, el análisis, la evaluación y valoración de las solicitudes presentadas, así como la elaboración de las propuestas de concesión.

2. El Órgano de Evaluación estará presidido por el Director General de Desarrollo Territorial. Serán vocales: el Subdirector General de Cohesión Territorial y una persona del equipo técnico de la Dirección General de Desarrollo Territorial, que ejercerá la labor de secretaria.

3. Los trabajos materiales de estudio y propuesta de evaluación de las solicitudes presentadas serán realizados por el personal técnico cualificado de Azpiegiturak, S.A.M.P., quien los presentará en el Órgano de Evaluación.

4. La constitución del Órgano de Evaluación será válida a los efectos de celebración de sesiones, deliberaciones y toma de acuerdos, con la presencia de la presidenta o del





idazkaria —edo hala badagokio, ordezkok— eta gainerako kideetako bat. Gutxienez. Hitzarmen honetan beren-beregi ezarrita ez dauden gaietan, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen atariko tituluaren II. kapituluaren 3. atalean araututakoa aplikatuko da.

5. Batzorde horren osakeran, bi sexuen ordezkaritza orekatua egon behar da, eta horrek esan nahi du gutxienez biak ordezkaturik daudela.

6. Dirulaguntza emateko behin betiko proposamenak entitate onuradunaren identifikazioa jasoko du, bai eta honako alderdi hauek ere proposamen bakoitzeko: proiektua edo finantzaturako irtenbidea, gauzatzeko epea eta proposaturako dirulaguntzaren zenbatekoa. Proposamen horrek ez du eskubiderik sortuko proposamen horretan onuradun gisa agertzen diren pertsona edo entitateen alde.

Proposamena ezezkoa bada, horren arrazoiak adieraziko ditu.

presidente y de la secretaria o del secretario o, en su caso, de quienes lo sustituyan y, al menos, una persona más del resto de vocales. En todo lo relativo al funcionamiento del Órgano de Evaluación, no previsto en esta base, se aplicará supletoriamente la sección 3.ª del Capítulo II del Título Preliminar de la Ley 40/2015, de 1 de octubre, de Régimen Jurídico del Sector Público.

5. En la composición del órgano de evaluación se tendrá en cuenta la necesidad de una representación equilibrada de ambos sexos, entendiéndose que ello supone que al menos ambos estén representados.

6. La propuesta definitiva de concesión incluirá la identificación de la entidad beneficiaria, así como los siguientes aspectos por cada solicitud recibida: proyecto o solución financiada, plazo de ejecución e importe de la subvención propuesta. Dicha propuesta no creará derecho alguno a favor de las personas o entidades que figuren en dicha propuesta como beneficiarias.

Si la propuesta es negativa expresará los motivos de dicha denegación.

22. artikulua.- Ebazteko epea

1. Foru-dekretu honen babesean aurkezten diren eskabideak ebazteko gehieneko epea sei (6) hilabete izango da, eskabideak aurkezteko epea amaitzen denetik hasita.

2. Aurkeztutako eskabide guztiei ebazpen espresua emateko eskumena duen organoak ebazpena eman behar badu ere, ebazpena eta jakinarazpena emateko epea iraungi eta ebazpen espresua eman ez badu, eskabidea administrazio isilbidez baztertu egin duela ulertuko da, urriaren 1eko 39/2015 Legearen 25. artikuluan xedatutakoaren arabera.

Artículo 22. Plazo de resolución.

1. El plazo máximo para la resolución de las solicitudes formuladas al amparo del presente Decreto Foral finalizará transcurridos seis (6) meses desde la finalización del plazo para presentar solicitudes a la convocatoria.

2. Sin perjuicio de la obligatoriedad del órgano competente de dictar resolución expresa en todas las solicitudes presentadas, si vencido el plazo de resolución y notificación, ésta no se hubiese dictado expresamente, se entenderá desestimada la solicitud por silencio administrativo, conforme a lo dispuesto en el artículo 25 de la Ley 39/2015.

23. artikulua.—Ebazpena

1. Aurkeztutako eskabideak prozedura bakarrean izapidetuko dira, eta prozedura hori ebaztea, entitate interesdunek mahairatutako gai guztiak erabakita, Azpiegituretarako eta Lurralde Garapenerako foru diputatuari dagokio, Ebaluazio-organismoak proposamena egin ondoren.

2. Ebazpenak, gutxienez, honako hauek jasoko ditu:

Artículo 23. Resolución.

1. Las solicitudes presentadas se tramitarán en un único procedimiento cuya resolución, decidiendo todas las cuestiones planteadas por las entidades interesadas, corresponde al Diputado Foral de Infraestructuras y Desarrollo Territorial, previa propuesta del Órgano de Evaluación.

2. La resolución contendrá como mínimo:





i. Dirulaguntza ematea proposatzen den eskabidearen identifikazioa, hori gauzatzeko epea eta ematen den laguntzaren zenbateko osoa adierazita.

ii. Deialdiko baldintzak ez betetzeagatik ezestea proposatzen den eskabideen zerrenda, eta baldintza horiek bete dituzten arren, azkenean dirulaguntza eman zaion eskabideak baino balioespen txarragoa jaso duten eskabideen zerrenda. Azken kasu horretan, balioespen-irizpideak aplikatuta egingo da zerrenda, lortu duten puntuazioa adierazita. Horrekin guztiarekin batera, ezesteko proposamena arrazoituko da.

3. Interesdunei banan-banan jakinaraziko zaizkie ebazpenak, 39/2015 Legearen 40. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoaren arabera.

Ebazpena entitate edo pertsona onuradunari jakinarazita, hark hamar (10) egun balioduneko epea izango du dirulaguntza onartzeko, jakinarazpena egin eta biharamunetik aurrera zenbatzen hasita. Epe hori amaituta interesdunek ez badute beren-beregi ezer adierazi, ebazpena onartutzat joko da.

4. Dirulaguntza ematen duen organoak ofizioz alda dezake dirulaguntza emateari buruzko ebazpena, interesdunari entzun ostean eta funtsak erabili aurretik, baldin eta, ikusirik aldatu egin direla dirulaguntza emateko kontuan harturiko baldintzak, oztopatu edo eragotzi egiten bada lortu nahi zen interes publikoa lortzea eta ez bazaio kalte ekonomikorik eragiten onuradunari.

24. artikulua. Errekurtsoak

1. Ebazpen honek amaiera ematen dio administrazio-bideari, eta haren aurka aukerako berraztertze-errekurtsoa aurkez dakioke Azpiegituretarako eta Lurralde Garapenerako Saileko titularrari, hilabeteko (1) epean, jakinarazpen hau jaso eta biharamunetik hasita, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legean ezarritakoaren arabera.

2. Halaber, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jar daiteke Administrazioarekiko Auzietarako dagokion Epaitegian, bi (2) hilabeteko epean, jakinarazpena jaso eta biharamunetik aurrera, Administrazioarekiko Auzien

i. Identificación de la solicitud para la que se propone la concesión de subvención, indicando los plazos para su realización y la cuantía global de ayuda que se concede.

ii. Relación de las solicitudes que se proponga desestimar por no cumplir los requisitos de la convocatoria, así como aquellas otras que cumpliendo con dichos requisitos resulten peor valoradas que aquella a la que finalmente se conceda la subvención. En este último caso, se realizará, asimismo, una relación de las mismas, indicando la puntuación que hayan obtenido en aplicación de los criterios de valoración aplicados. A todo ello, se le acompañará su correspondiente motivación que fundamenta la propuesta de desestimación.

3.. La resolución se notificará a las entidades interesadas, de acuerdo con lo previsto en los artículos 40 y siguientes de la Ley 39/2015.

Notificada la resolución, la persona o entidad beneficiaria dispondrá de un plazo para su aceptación, de diez (10) días hábiles contados a partir del día siguiente al que tenga lugar la notificación. Transcurrido dicho plazo sin haberse producido manifestación expresa, se entenderá tácitamente aceptada.

4 El órgano concedente podrá modificar de oficio la resolución de concesión, previa audiencia de la parte interesada y antes de la aplicación de los fondos, cuando, habiéndose advertido una alteración de las condiciones tenidas en cuenta para la concesión de la subvención, éstas impidan o dificulten la consecución del interés público perseguido y no se causen perjuicios económicos a la persona o entidad beneficiaria.

Artículo 24. Recursos.

1. La resolución agota la vía administrativa, y contra la misma se podrá interponer Recurso Potestativo de Reposición ante la persona titular del Departamento de Infraestructuras y Desarrollo Territorial, en el plazo de un (1) mes, a contar desde el día siguiente a aquel en que se reciba la notificación de la misma, en los términos que establece la Ley 39/2015.

2. Asimismo, podrá interponerse recurso contencioso administrativo ante la Jurisdicción Contencioso-Administrativa, en el plazo de dos (2) meses contados desde el día siguiente a aquél en que reciba la notificación





Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legean ezarritako eran. Ezin izango dira bi errekurtsok aldi berean jarri.

de la misma, en los términos contemplados por la Ley 29/1998 de 13 de julio, Reguladora de la Jurisdicción Contencioso Administrativa. No será posible simultanear ambos recursos.

25. artikulua. Dirulaguntzari uko egitea

1. Onuradun gertatu den pertsona edo entitate batek dirulaguntzari uko egiten badio, dirulaguntza eman duen organoak zerrendan —lortutako puntuen hurrenkeraren arabera— hurrengo dauden pertsona edo entitate eskatzaileei emango lieke, baldin eta eskabide horiei aurre egiteko kreditu nahikorik balego.

2. Dirulaguntza ematen duen organoak aukera horren berri emango die interesdunei, hamar eguneko epean dirulaguntzaren proposamena onar dezaten. Epe hori, gainera, ezin izango da luzatu. Dirulaguntza eskatu duen pertsona edo erakundeek proposamena onartzen dutenean, administrazio-organoak laguntza emateko egintza ezarri eta jakinarazpenak egingo ditu.

3. Uko egitea aurkezteko gehieneko epea hamar (10) egun baliodunekoa izango da, entitate interesdunari dirulaguntzaren proposamena jakinarazten zaionetik hasita. Epe hori igaro ondoren, uko egitea dirulaguntza emateko arrazoi izan diren baldintzak ez-betetzea dela joko da.

Artículo 25. Renuncia de la subvención.

1. En caso de renuncia a la subvención de alguna de las personas o entidades beneficiarias, el órgano concedente podrá acordar la concesión de la subvención a las personas o entidades solicitantes siguientes en orden de puntuación, siempre y cuando se haya liberado crédito suficiente para atender las solicitudes de que se trate.

2. El órgano concedente comunicará esta opción a las interesadas, a fin de que acepten la propuesta de subvención en el plazo improrrogable de diez días. Una vez aceptada la propuesta por las personas o entidades solicitantes, el órgano administrativo dictará el acto de concesión y procederá a su notificación.

3. El plazo máximo para poder presentar una renuncia será de diez (10) días hábiles desde la notificación de la propuesta de subvención a la entidad interesada. Transcurrido ese plazo, cualquier renuncia tendrá la consideración de incumplimiento de las condiciones por las que se ha otorgado la subvención.

26. artikulua. Jakinarazpen elektronikoa

1. Azpiegituretarako eta Lurralde Garapenerako Sailak bitarteko elektronikoen bidez egingo dizkie jakinarazpenak entitate interesdunei, 39/2015 Legearen 40. artikuluan eta hurrengoan aurreikusitakoarekin bat.

